

Gure herrien defentsan

20 PISTA MERKATUAK ERDIGUNETIK KENTZEKO

Júlia Martí Comas eta Zaloa Pérez Hernandorena



Izenburua: Gure herrien defentsan.
20 pista merkatuak erdigunetik kentzeko.

Egileak: Júlía Martí Comas eta Zaloa Pérez Hernandorena

Parte hartu dute: Ainhara Plazaola, Alfonso Caño, Alfonso Dubois, Amaia Pérez, Ana Etxarte, Andoni Egia, Andoni Louzao, Carlos Askunze, Carlos Renedo, David Lopategi, Gonzalo Fernández, Gorka Martija, Irati Sienra, Isabel Álvarez, Itxaso Apraiz, Izaro Basurko, Izaskun Duque, Janire Landaluze, Jokin Alberdi, Juan Hernández, Luismi Uharte, Maialen Arregi, Maitane Arri, Marijo Imaz, Mikel Kormenzana, Mikel Zuluaga, Miren Aranguren, Miren Saiz, Neskutz Rodriguez, Oihana Etxebarrieta, Silvia Piris, Tomi Etxeandia, Urtzi Ostolozaga, Yago Álvarez eta Zoe Brent.

Honako hauei euren iruzkinak eta ekarpenak eskertu nahi dizkiegu: Yolanda Jubeto (UPV/EHU), Mertxe Larrañaga (UPV/EHU), Mikel Kormenzana (Bizilur), Miren Saiz (Bizilur), Marijo Imaz (Urduñako Udala), Isabel Álvarez (Urgenci), Pedro Lloret (CERAI), Alfredo Hoyuelos (Iruñeko Udala), Santiago Ochoa (Goienar), Xabier Zubialde, Gorka Bueno (Ekologistak Martxan), Iratxe Arriola (Eako Udala), Paula Martí (Cel Obert), Alex Frances (Bartzelonako maizterren sindikatu), Daniel Pardo, (Bartzelonako Asamblea de Barris pel Decreixement Turístic), Carlos Rey (REAS Nafarroa), Gorka Julio (Talaio Coop) eta Rubén Martínez (Hidra Cooperativa).

Diseinatzailea eta maketatzailea: Iñaki Landa eta Leire Milikua

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi

Argitaratze-data: 2020

Argitaratzaileak:



Bakea eta Duintasuna 1995ean sortutako irabazi-asmorik gabeko erakundea da. Honek gaur egun nagusi den eredu neoliberalak eraldatzeko lan egiten du eta desberdintasunak eta bidegabekeriak sortzen dituzten kausetan eragin nahi du, giza eskubideak babestuz eta elkartasunaren eta nazioarteko lankidetzaren bitartez.



Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL) Bakea eta Duintasuna elkarteak 2003an sortutako proiektua da. Haren identitatea honako hauetan oinarritzen da: enpresa transnazionalen praktikak eta inpaktuak ikertzea eta salatzea, botere korporatiboaren joera globalen segimendua egitea eta klabe emantzipatzaileak erabiliz alternatibak sistematizatzea.



REAS Euskadi -Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea- erakundeak ekonomia solidarioa ahalik eta gehien indartzeko eta horren aintzatespena sustatzeko helburua du. Horretarako, bada, arlo ekonomikoan alternatiba eraldatzaileak sortzen dituzten esperientziak eta tresnak sustatzen ditu.

Laguntzaileak:



Lizentzia: Argitalpen honek Creative Commons lizentzia du: **Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0**

Espainia. Ikus lizentziaren kopia hemen: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu>

EDUKIAK:

AURREKONTUA ETA ZORRA	15
1. Zorraren audiotoretza herritarra eta ez ordaintzeko estrategiak	16
2. Erosketa Publiko Arduratsua (EPA)	18
3. Bidezko eta genero-ikuspegidun aurrekontu parte-hartzaileak	20
NEKAZARITZA ETA ELIKADURA	23
4. Tokiko ekoizpen agroekologikoko sareak	24
5. Tokiko merkaturatze-zirkuituak eta azpiegitura logistikoak garatzea	26
6. Ardura publiko-komunitarioa elikadura osasungarri, bidezko eta iraunkor bat lortzeko	28
ENERGIA, URA ETA HONDAKINAK	31
7. Parte-hartze publikoa eta komunitarioa elektrizitate-sistemen kudeaketan	32
8. Uraren tokiko kudeaketa jasangarria	34
9. Zero hondakin	36
EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	39
10. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) ekoizpen-ehuna	40
11. Enpresen interesen aurrean blindatzea	42
LURRALDE-PLANGINTZA, URBANISMOA ETA ETXEBIZITZA	45
12. Udalerrri-plangintza feminista eta ekologista	46
13. Espekulazioa gelditzea eta etxebizitza-eskubidea	48
DENBORAK ETA ZAINTZAREN ANTOLAKETA SOZIALA	51
14. Gizarte-denbora berrantolatzea	52
15. Zaintzaren sektorea duin bihurtzea eta lan-eskubideak bermatzea	53
KULTURA	57
16. Kultura askea eta eskuragarria sustatzea	58
17. Kultura-guneen kudeaketa publiko-komunitarioa	60
GIZARTE-ESKUBIDEAK	63
18. Antolakuntza prekarizazio sozialaren aurrean	64
19. Autodefentsa eta erakundeen inplikazioa lan-prekarietatearen aurrean	66
20. Ekonomia komunitarioak bizitzaren merkantilizazioaren aurrean	67

SARRERA

Amorrua agentzia politiko bihurtzea, haserrea herri-mobilizazio, beldurra elkartasun eta apatia itxaropen; horiek dira *Merkatuak erdigunetik kentzeko pista* hauek sortzeko prozesua inspiratu duten printzipioak.

Orrialde hauetan *enpresa transnazionalen* aurkako borrokan lehentasunezkoak diren eremu eta neurri politikoak laburbildu ditugu; izan ere, enpresa transnazionalak amildegi sozialera eta kolapso ekologikora garamatzan ereduaren protagonista nagusiak dira. Borroka horrek, zalantzarik gabe, dimentsio globala du baina, gaur egun, *lurraldean* aurkitzen du gatazka politikorako eremu estrategikoa. Tokiko eremua, beraz, gehiengo sozialen eguneroko bizitza garatzeko eremua da eta, bertan, alternatibak probatzen ditugu. Aldi berean, kapitalek ere bertan kokatzen dituzte euren asmo merkantilizatzaile nagusietako batzuk (ondasun naturalak, lur arraroak, erosketa publikoa, energia, zerbitzuak, azpiegiturak, etab.), krisi sakoneko une hau gainditzeko azken aukera bezala.

Zentzu horretan, gure proposamenek krisi horri ikuspegi emantzipatzaile batetik aurre egiteko erreferentzia izan daitekeen

baliabide bat izan nahi dute. Horiek, bada, agenda politiko integralak sustatu nahi dituzte eta, udalerri-mailatik, merkatuak eta enpresa handiak erdigunetik kentzearen eta guztion ona lehenestearen premia, ego-kitasuna, bideragarritasuna eta ahalmena bistaratu. Udalerri hori, bere adiera formal eta instituzionalean ulertuta ez ezik, eraldatzeko asmoa duten eragile eta dinamika autogestionario, sozial eta komunitario anitzak biltzen dituen eremu gisa ere ulertzen da. Azken finean, “ez dago alternatibarik” pentsatzetik “badaude, antolatu behar ditugu eta lurraldea abiapuntu ona da” ulertzera igaro behar dugu. Hala, munizipalismo kontzeptu inklusiboa erabiltzen dugu, botere korporatiboari aurre egiteko lehentasuna duena, testuinguru dinamiko batean sormena eta eskuratutako esperientzia historikoa uztartzen dituen eta, hemen eta han, Iparralde zein Hegoalde globalean, beste prozesu sozial eta instituzional batzuei begiratzen diena eta horiekin antolatzen eta horiengandik kutsatzen dena.

Hain zuzen ere, tokiko-global logika horretan, gure ekintza-programak nondik eta nora proiektatzeko eremu bezala hartu ditu Euskal Herriko herriak. Hauen idiosinkrasiak, izaerak eta berezitasunek, bada, eragina izan dute egindako azterketa eta proposamenean. Hala ere, Euskal Herriko tokiko eremuko

testuinguruak eta egoerak askotarikoak diren heinean, dokumentu hau jarduera-esparru orokor bat besterik ez da eta nahitaez egokitu eta birdefinitu behar da kasu bakoitzean. Hortik abiatuta, Euskal Herriko tokiko eremuaren zentraltasuna ez da oztopo gure programak apustu internazionalista ukaezin bat izan dezan –aztertutako esperientzia asko beste latitude batzuetan probatu dira-, ezta proposamenak Espainiako estatuan, Europan edo Latinoamerikan beste prozesu batzuetarako ere baliagarri izan daitezen.

Beraz, hemen duzue erabilgarria izatea espero dugun tresna bat, egungo zibilizazio-krisiari aurre egiteko alternatibak inspiratu ahal izango dituen; lurraldea abiapuntu estrategikotzat hartuta, botere korporatiboaren aurrean esparru eta neurrietan egituratutako ekintza-programa batetik abiatuta, eta ikuspegi internazionalista eta Euskal Herriak eta munduak elkar kutsatzeko ikuspegi batetik.

Jarraian, Bakea eta Duintasuna-OMAL elkarteak, REASEk eta Euskal Herriko beste hainbat erakundek¹ egiten dugun apustu kolektibo horren oinarrian dauden eta hura azaltzen duten ideia nagusiak aurkeztuko ditugu.

Botere korporatiboa, kapital-bizitza gatazkaren protagonista

Enpresa transnazionalak inoiz ez bezalako boterea dute gaur egun. Ekoizpen-, erauzketa-, teknologia-, finantza-, zerbitzu-, merkataritza- eta banaketa-kate ekonomiko global nagusiak kontrolatzen dituzte. Gainera, beren boterea kultura-eremura ere zabaltzen dute eta, informazioa, komunikazioa eta ezagutza gero eta gehiago kontrolatuz, beren balio eta ikuspegiekin bat datozen kontakizunak proiektatzen dituzte. Zirkulua ixteko, beren interesak politikoki eta juridikoki blindatuta dituzte, intentsitate oso baxuko demokrazia batean. Horretan, bada, *lobby*en garrantziak, ate birakariak eta ustelkeriak eragin handia dute. Izan ere, enpresen inpunitate-marko orokorrak agerian uzten du *lex mercatori*aren nagusitasun juridikoa (merkataritza-akordioak, inbertsio-hitzarmenak, doikuntza-planak, nazioarteko kontratuak, etab.) giza eskubideen eta herri-subiranotasunaren aurrean. Hala, multinazionalak eta hauen agenda bera duten instituzioek osatutako sareak indarrean dagoen sistemaren protagonista den *botere korporatiboa* osatzen dute, gure bizitzaren gero eta esfera gehiago kontrolatuz.

1. ELA, LAB, Bizilur, Gernika Gogoratuz, Emagin, XXK, Ekologistak Martxan, Euskal Gune Ekosozialista, Tradener, OEE, Hiritik At, Urgenci, TNI, EH Bildu eta Herriaren Eskubideak.

Sistema hori, hala ere, krisi sakon batean dago eta inoiz ez bezalako paradoxa bati aurre egin behar dio: ekonomiaren finantzarizazioan oinarritutako azken bost hamarkadatan sortutako kapital-soberakin erraldoia metatzeko eremuak aurkitu behar ditu, baina hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenak ez dira oso itxaropentsuak. Eta gainera, izugarrizko ahultasun klimatiko eta sistemaren oinarri fisikoa murrizten ari den testuinguru batean. Hura, beraz, lan zaila da: metaketa-eremu sendorik gabe haztea, baliabide material eta energetiko gutxiagorekin, eta finantza- eta klima-testuinguru ahul batean; kapitalismoaren historian inoiz ikusi ez dena, alegia.

Hala eta guztiz ere, botere korporatiboak bere pribilegioak eta nortasuna mantendu nahi ditu. Hortaz, bere proiektua birdefinitzen du paradoxa hori gainditzeko asmoz, klabe are oldarkorragoak eta bortitzagoak erabiliz. Hortaz, *XXI. mendeko kapitalismo* bat formulatzen du eta honek, lotsarik gabe, muga guztiak kendu nahi dizkie merkatu kapitalistei eta nazioarteko negozioei. Kapitalaren dinamikak porrot egin badu, orain aurrerantz ihes egin nahi du: ezer ezin da geratu nazioarteko negozioen ekintza-eremutik kanpo. Merkatua, beraz, paradoxa kapitalistari aurre egiteko irtenbide bakarra omen da. Gainera, enpresa handien aldeko blindaje

politiko-juridikoa esplizitua eta erabatekoa izan behar da, dauden minimo demokratiakoak ezabatuz. Ez dago behar beste tarta kapital guztiak elikatzeko eta, ondorioz, eskualde-blokeen arteko gerra ekonomikoaren logika nagusituz doa.

Beraz, *ofentsiba merkantilizatzaile* bat sortzen da. Horrek enpresa transnazionalen zerbitzura dena jartzeko mehatxua egiten du eta, aldi berean, aberastasun- eta metaketa-iturri guztiak ahalik eta gehien esplotatzen saiatzen da. *Merkatu-nitxo berriak* negozio globalen jomuga bilakatzen dira; batez ere zerbitzuak -publikoak ere-, ondasun naturalak -ura, lurra, energia, materialak- eta erosketa publikoa; publikoa eta komuna den guztia ezabatzeko asmoz. Prozesu honetan, dohainik edo gutxi ordainduta egiten diren zaintza-lanak are gehiago prekarizatzen dituzte, bai sektore horretako enpresa handiek irabaziaz handitzeko asmoz hauek xurgatzen dituztelako, bai bizitza zaintzeko gero eta zailagoa den testuinguruaren ondorioz sortzen den zaintza-gainkargagatik. Horrekin batera, finantzak metaketa-eremu bilakatzen dira, lana *uberizatzen* da eta ekonomia digitalaren aldeko apustua egiten da, irabaziaz mantentzeko eta hazkunde orokorreko olde berri bat sortzeko helburuz.

Botere korporatiboak, azken finean, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka larriagotzen duen proiektua babesten du, amildegi sozialera, demokrazia ezabatzeraz eta kolapso ekologikora garamatzana.

Munizipalismoa botere korporatiboaren aurrean

Lurraldeak eremu estrategiko bilakatu dira, mundu globalizatu batean kontrakoa badi-rudi ere. Horietan, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka estrategikoki zehazten eta garatzen da. Gatazka hori, bada, maila guztietan -pertsonala, tokikoa, estatukoa, eskualdekoa eta globala- ematen dela ukatu gabe, lurraldea eremu bereziki garrantzitsua da gatazka politikoan bi arrazoiengatik. Alde batetik, lurraldea, eremu fisikoaz harago, pertsonon, eragileon eta komunitateon harremanak, kooperazioa eta gatazkak hartzen dituen subjektu politiko nagusia da. Eremu horretan, hain zuzen, gure bizitzak garatzen ditugu, gure beharrak asetzea espero dugu, zaintza-sareak eratzen ditugu, gure itxaropenak kokatzen ditugu eta gure proposamenak eta aldaketarako alternatibak saiatzen ditugu.

Baina gainera, lehen aipatu bezala, XXI. mendeko kapitalismoaren helburuetako asko tokiko eremuan kokatzen dira. Azpiegiturak, zerbitzuak, nekazaritza, elikadura, ura,

lurra, energia, erosketa publikoa... Horiek gaur egungo gatazka ekonomiko eta geopolitikoaren gakoak dira. Lurraldeak, hortaz, salerosgai baliotsu bilakatzen dira, ezinbesteko eremuak biltzen baitituzte, bai bizitzarako -hipotetikoki, irabazi-iturri amaiezina-, bai metaketa kapitalistarako, oinarri fisiko eta materiala larriki murriztu den une honetan. *Desjabetze bidezko metaketa* batez ari gara, logika komunitario eta/edo publikoaren kontrola kendu eta nazioarteko kapitalaren zerbitzura jarri nahi duena.

Lurraldea kapital-bizitza gatazkaren eta botere korporatiboaren aurkako borroka herri-tar eta demokratikoaren agertoki nagusietako bat da.

Zentzu horretan, beraz, *udalerrriak* -tokiko maila gauzatzen duten heinean- bizitza antolatzeko beste modu batzuetara igarotzeko eremu bilakatzen dira. Udalerrria subjektu/ lurralde gisa ulertua, non identitate eta logika anitzak dituzten hainbat eragile eta dinamika harremanean dauden; autogestionarioak, sozialak eta komunitarioak, alde batetik, zein instituzionalak, bestetik. Udalerrria eta udala ez dira gauza bera eta, halaber, ezin dugu ekintza politikoa politika publikoetara murriztu (nahiz eta hauek garrantzitsuak diren). Aldi berean, idealizatu gabeko udalerrri batez ari gara, beti gatazkak

eta menperatzeak pairatzen dituenak, baita probintzia-, autonomia-, estatu-, eskualde eta mundu-mailako harremanak dituenak ere.

Zuhurtasun horiek kontuan hartuta, *munizipalismoaren aldeko apustua* egiten dugu. Horrek gaur egun nagusi den logika gaitzesten du, udalerrinari hiri-markaren logika aplikatzen diona inbertsioak, turismoa eta ekitaldiak erakartzeko lehiatuz. Aitzitik, beste erreferente hauek ezarri nahi ditugu: guztion onaren mesederako, merkatuak eta enpresak erdigunetik kentzeko lehentasuna; herri-boterea botere korporatiboari aurre egiteko ezinbesteko bide bezala indartzeko helburua; herritarron parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa edozein prozesu askatzaileraren oinarri bezala; epe ertain eta luzeko begirada estrategikoa eta integrala ahaleginak batzeko, eragina biderkatzeko eta balio erantsia sortzeko tresna bezala; lurraldeak tokiko-global gatazka bere gain hartzea, hori eremu guztietatik landu behar baita.

Gure apustuaren barruan premisa horietan aurrera egiteko, onena litzateke erakunde publikoen eta herri-mugimenduen ardurakidetzea izatea. Hau da, bizitzaren desmerkantilizazioarekin eta deskorporatibizazioarekin eta herri-boterea sortzearekin konprometitutako udalak izatea, plangintza estrategikoak eta parte-hartze bidezko aurrekon-

tuak garatzen dituztenak, gizartean ahalmen pedagogikoa dutenak eta eskumen-eremu zabalagoetan eragiteko inplikatzeko direnak. Hala eta guztiz ere, eremu instituzionala, politikak eta sen ona sortzeko garrantzitsua den arren, ez da munizipalismoa aurrera eramateko ezinbesteko baldintza. Bai tokiko erakunde asko botere korporatiboaren parte direlako, bai horien logikak ez datozelako bat logika sozial eta autogestionarioekin, ardurakidetzea hori ez da beti posible, desiragarria bada ere. Nolanahi ere, tentsioan egon ohi diren eremu instituzionalaren eta sozial-komunitarioaren arteko elkarguneak bilatzeko prozesu horiek beharrezkoak dira baina, kasu bakoitzean, logika bi horien arteko harremana eta aliantza aztertu eta definitu beharra dago. Nolanahi ere, beharrezkoa da gizarte- eta herri-mugimendu sendoa izatea, gaitasun politikoa eta estrategikoa duena.

Beraz, eremu-komuna sendotzearen eta, helburu horrekin, parte-hartzeko estrategia integralak planifikatzearen, munizipalismo ardurakide baten alde egiten dugu. Botere korporatiboaren aurkako borroka bere gain hartzeko prest dagoen munizipalismoa, alegia, sormenez eta arduraz gaur egun dauden hesiak hausteko helburua duena.

Merkatuak erdigunetik kentzeko pistak

Egin dugun programak munizipalismoa ulertzeko modu hori onartzen du eta horretarako erreferentzia izan nahi du, baliabide apal gisa. Zentzu horretan, zortzi eremu aukeratu ditugu zeinetan botere korporatiboarekiko gatazka zuzena eta estrategikoa den: aurrekontua eta zorra; nekazaritza eta elikadura; energia, ura eta hondakinak; ekonomia eta tokiko garapena; lurrareplangintza, urbanismoa eta etxebizitza; denborak eta zaintzaren antolaketa soziala; kultura; eta gizarte-eskubideak.

Horien barruan, enpresa transnazionalak pilatutako boterea modu zehatz batean desafiatzen duten eta bizitza desmerkantilizatzen, deskorporatibizatzen eta demokratizaten lagunduko duten hogeitaurri politiko aukeratu ditugu. Izan daitezkeen guztien artean, horiek lehenetsi ditugu oinarritzko lau irizpide hauen arabera: lehenik, enpresa handien praktika eta kontakizun hegemonikoak trabatzeko gaitasuna; bigarrenik, bizitza antolatzeke beste modu batzuetara igarotzeke ikuspegia; hirugarrenik, bere ikuspegi intersektzionala eta eragile eta subjektuekin inklusiboa, herri botere antolatua baina anitza sortzen laguntzen duena; eta laugarrenik eta azkenik, herri-mobilizaziorako ahalmena. Eremu eta neurri horiek, eta batez ere euren

ikuspegi integrala, inklusiboa eta erradikala, bizi garen momentu kritiko honi aurre egiteko gai diren estrategia politikoak sortzeko lagungarriak izatea espero dugu. Botere korporatiboa desegin ahal eta behar dugu eta, horretarako, munizipalismoa abiapuntu onada.



AURREKONTUA ETA ZORRA

Aurrekontuen kudeaketa udal-politikaren funtsezko elementua da. Hala ere, maiz, aurretik jasotako zorrak eta politika neoliberal birzentralizatzaileak udalerriaren autonomia kaltetzen eta aurrekontuak mugatzen dituzte. Zorra, bada, kontrol-mekanismo bilakatzen da, prozesu eraldatzaileak mugatzen eta pribatizazio- eta azpikontratazio-prozesuak errazten dituena. Hain zuzen, kontrol hori Konstituzioaren 135. artikulua-ren erreformaren eta *Montoro Legearen* bitartez gauzatu da, lege horiek honako neurri hauek ezartzen baitituzte: zorraren zerbitzua ordaintzearen lehentasuna, gastuaren araua, inbertsioen ikuskapena edo langileen %0ko erreposizio-tasa.

Gainera, zorraren kudeaketa neoliberalak ere negozio-nitxo errentagarria bilakatu da finantza-erakundeentzat; izan ere, bankuak eurak, zorraren bankarizazioaren bitartez, likidezia bermatzeko, zorrak amortizatzen edo birfinantzatzeko mekanismoak kudeatzeaz arduratu dira. Horren adibide da Mon-

toro ministroak bultzatutako *Hornitzaileei ordaintzeko plana*. Horretan, bankuak bitartekari izan ziren Europako Banku Zentralaren eta udalen artean, ordaindu gabeko fakturak kitatzeko kreditu-lerro berriak bideratzeko helburuarekin. Negozio borobila, alegia; izan ere, bankuek interes baxuko maileguak jasotzen zituzten EBZtik eta gero udalei % 5tik gorako interesarekin ematen zieten.

Beste alde batetik, gehiegizko zorpetze-egoerak estu lotuta daude ustelkeriarekin, gardentasunik ezarekin eta, tokiko ekonomia-ehunaren ordeztasunarekin, eraikuntza-enpresa handiak laguntzen dituen politika ekonomikoarekin. Zentzu horretan, bada, Euskal Herrian hainbat ezaugarri errepikatzen dira: zor esanguratsua, kudeaketa opakua, klientelismo-sare publiko-enpresariala, pribatizazio sotilak, eraikuntza-lan handien aldeko apustua eta salaketan aurrean nolabaiteko zigorgabetasuna.

Horregatik, aurrekontuen eremuan udalerrimailako alternatibek honako hau eskatzen

dute: lehenbizi, zorraren arazoari aurre egitea, desobeditzeko edo zorpetze-egoeran ezartzen diren mugak malgutzeko moduak bilatuz; eta batez ere zorraren atzean dagoen eredu ekonomikoa salatzea eta horren aurrean blindatzea. Helburu horrekin, besteak beste, zorraren auditoretza herritarra egitea edo finantza etikoak sustatzea proposatzen dugu.

Halaber, genero-ikuspegia duten parte-hartze bidezko aurrekontuak funtsezko neurria dira kudeaketa-eredua eraldatzeko. Horiek udal-kontuen neutraltasun faltsuari aurre egiteko eta hauen gestioa demokratizatzeko helburua dute. Era berean, ezinbestekoa da Erosketa Publiko Arduratsuaren bitartez udalaren kontsumoa eta inbertsioa eraldatzea.

1. Zorraren Auditoretza Herritarra eta ez ordaintzeko estrategiak

Zorraren krisia piztu zenetik, *zorraren auditoretza herritarra* agenda publikoan izan zen denbora batez. Baina, interes-tasak jaisteari eta udalek zorra ordaintzeko egin zuten ahaleginei esker egoera nolabait egonkortu ondoren, problematika hori ez da hedabideetan gehiago aipatu.

Hala ere, udalerriak zorpetuta daude oraindik eta ordaintzeko zailtasunak edozein unetan itzul daitezke. Gainera, zor publikoaren amortizazioak, “gobernu oneko” neurri bezala aurkeztua, xahutzearen sozializazioa dakar, oro har. Hortaz, ezinbestekoa da *zorraren auditoretza*ren alde egiten jarraitzea.

Zorraren Auditoretza Herritarren Plataforma (PACD) 2002an sortu zen M15eko herri-batzarren ondorioz, hiru helburu hauekin: munduko eko-

nomia-sistemaren oinarri den eta bi-degabekeria handiak sortzen dituen zorpetze-mekanismoa salatzea; ikasketa-eremuen eta partaidetza-metodologiaren bitartez burujabetza berreskuratzea; legitimoa ez den zorra ez ordaintzea eta erantzukizuna eskatzea.²

Auditoretza herritarra **zorpetze-politika modu kritikoan aztertze**ko tresna da, parte-hartzeko prozesu ireki baten bitartez. Horren helburua, zorra sortu duten prozesuak aztertzea eta ebaluatzea da, horiek legezkoak, legitimoak eta gardenak izan diren eta herritarrentzat eta ingurumenarentzat kalteak sortu dituzten erabakitzeak. Hain zuzen ere, nazioarteko zuzenbidearen arabera, zor bat ilegítimoa da zuzenean edo zeharka herritarren bizitzaren duintasuna kaltetzen duten eta herrien arteko bizikidetzak baketsua arriskuan jartzen duten maileguetatik bator, horiek emateko eta kudeatzeko moduetatik edo finantzatzen duten horregatik.

Pedagogia politikoko prozesu bat da, **zorraren aurrean erantzun emantzipatzaileak** eman nahi dituen, politika ekonomikoaren opakutasunarekin eta informazio faltarekin hautsiz. Helburua, beraz, herritarrok kontrolatzeko ahalmena berreskuratzea da, baita herritarron mobilizazioaren bitartez zorra birnegoziatzeko edo ez ordaintzeko estrategiak legitimatzea ere. Gainera, usteleria kasuak, abusuzko klausulak edo kostu handiko zorpetze-mekanismoak (adibidez, *swap*-ak) azaleratzeko balio dezake.

Hau da, bi planotan mugitzen gara. Ibilbide luzeko plano bat, zorra desestaltzea, kontzientzia politikoa sortzea eta desobeditzeko eta eredu aldatzeko estrategiak proposatzen dituen; eta beste plano bat, gehiegizko zorpetzea arintzeko eta inposatutako muga austeritarioei arrakalak aurkitzeko helburua duena.

2. PACDren web-orria: <https://auditoriaciudadana.net>



erreskatearen (Sevillako Morón de la Fronteran gertatu zen bezala⁴) edo hornitzaileei ordaintzeko planaren gainkostuaren kopuru berean. Udalerrriaren zorraren hartzekodun diren finantza-erakundeetatik gordailuak modu masiboan ateratzea edo zorraren eta udal-inbertsio eskasaren eta murrizketen arteko lotura azaltzen duten kanpainak ere tresna interesgarriak izan daitezke.

2013an, **Badalonako Udalak** 2012ko Hornitzaileei Ordaintzeko Planaren markoan finantza-erakunde pribatuekin **hartutako interesak ilegitimotzat hartzen zituen mozioa** onartu zuen. Izan ere, plana aplikatu zuten erakundeek % 5,54ko interesak aplikatu zituzten, hura % 1tik beherako interesekin lortutako diru publikoa zen arren.⁵

Ibilbide luzeko apustuari dagokionez, **zorrazagutzera emateko** adibide zehatz bat *Udal Behatoki Herritarrak* sortzea izan daiteke. Hura udalak modu kolektibo, ireki eta etengabe kontrolatzeko tresna herritarra da eta udal-kudeaketa ekonomikoaren opakutasuna eta ezagutza falta hausteko balio dezake. Hala, [programa libre](#) bat dago edozein kolektibok tresna hura bultza dezan laguntzeko.³

Halaber, beste neurri batzuk ere gara daitezke, bakarka sinbolikoak badira ere, zorraren iruzurra agerian uzteko eta horren ilegimitatea bistartzeko balio dutenak. Horren adibide dira *udalerrriaren zorra baliogabetzea* eskatzen duten mozioak, bankuei emandako

Udalerrriaren zorra kudeatzeko neurri ze hatzei dagokienez, lehenengo urratsa zorraren jatorria aztertzea da, jakiteko zorraren zein zati den iruzurraren ondorio eta hori konpontzeko neurri legal edo finantzarioak martxan jartzeko. Madrilen, adibidez, *Auditoretza Batzordeak*, besteak beste, udal-etxebizitzaren iruzurra argitara ematea lortu zuen, Ana Botellari eta bere taldeari 25 milioi euro itzultzeri behartuz.⁶ Era berean, aurreko udal-taldeak egindako *swap* aseguruak ere azaleratu zituen; hauek Euriborrak ezartzen duena baino interes-tasa askoz altuagoak ordaintzeri behartzen dute.

3. Programa librearen hemen dago deskargagarri: <http://ocax.net>

4. Morón Información (22/06/2014) "Morón es el primer municipio andaluz que declara su deuda con los bancos ilegítima".

5. Plataforma Auditoria Ciudadana de la Deuda (26/06/2013) "Badalona se convierte en la primera institución pública en reconocer la ilegitimidad de parte de la deuda pública".

6. Yago Álvarez (23/05/2019) "La mejor inversión de Ahora Madrid... y que Carmena metió en un cajón" *El Salto Diario*.

2013an **Urduñako Udalak** (EH Bilduk gobernatua), aldi batez, Kutxabankekin zuen **zorrra ordaintzeari utzi zion** presio-neurri gisa, udalaren gehiegizko zorpetze-egoerari aurre egiteko ezintasunaren aurrean. Udalak soldatak eta hornitzaileei ordaintzea lehenetsi zuen zorraren aurrean. Hala, eta herritarren mobilizazioari esker, Bizkaiko Foru Aldundiak egoera libratzeko beharrezkoa zen finantzazioa ematea lortu zuten.

2. Erosketa Publiko Arduratsua (EPA)⁷

Kalkuluen arabera, Espainiako estatuko administrazioen erosketek eta kontratazioek BPGren % 20 inguru hartzen dute. Hori oso kopuru handia da, batez ere guztion onaren mesedera egon zitekeela kontuan hartuz. Izan ere, diru hori lan-baldintza duinak edo lan-merkatuan berdintasuna sustatzera bidera zitekeen; hornitzaileei berdintasun-planak egitera, soldata-arraila ekiditera, genero-berdintasuna bermatzera, sexu-jazarpenaren aurkako neurriak hartzera edo komunikazio inklusiboa erabiltzera behartuz.⁸

Hala ere, administrazio publiko askok oraindik ez dute erosketa publikoa beste politika publiko batzuen eragina handitzeko politika estrategikotzat hartzen. Maiz, ahaztu egiten dugu zerbitzuak kanpora ateratzeak enplegu prekarioak dakartzala, ezbehar-kopuru handikoak eta zailtasunak dituzten horientzat aukera gutxiago ematen dituztenak. Horregatik, garrantzitsua da gizarte- eta in-

gurumen-klausulen bitartez efektu neutro edo negatibo bat eragin positibo bihurtzea.

Erosketa arduratsua egiteko erabakiek produktuen edo zerbitzuaren eta enpresa hornitzailearen ezaugarriak aintzat hartzen dituzte, prezioa eta kalitatea alde batera utzi gabe. Hain zuzen, honako hauek har ditzakete kontuan: ekoizpen-baldintzak, erabilitako materialak, langileen lan-baldintzak edota ekoizpenak edo zerbitzua emateak epe laburrean eta luzean sortzen dituzten ondorio zuzenak edo zeharkakoak. Gainera, horiek honako esparru hauetan aplikatzen dira: gizarteratzea eta laneratzea, ingurumena eta gertuko zirkuituak, aniztasun funtzionala, irabazi asmorik gabeko erakundeak lehenes- tea, bidezko merkataritza, lan-baldintzak edo genero-politikak, baita gardentasun fiskalari, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) sustatzeari edo Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) eta Mikro ETEk kontratu publikoak izateko aukerari dagozkion klausulak ere.

REAS Euskadik doako aholkularitza zerbitzu bat du Euskal Herriko administrazioei eta Ekonomia Solidarioko erakundeei administrazioetako baldintza-agirietan gizarte-klausulak txertatzen laguntzen diena.⁹

EPAr buruzko gero eta arau gehiago dago. Euskal Herrian, esate baterako, Gipuzkoak Foru Arau bat du eta Gasteizko Udalak Jarrabide batzuk prestatu ditu, klausula horiek kontratu publiko guztietan sartzea behartzen dituztenak. Gainera, estatu-mailan, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Le-*

7. UPV/EHUko Yolanda Jubetori eta Mertxe Larrañagari atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiegu.

8. Yago Álvarez (20/03/2019) "Las compras de tu ayuntamiento pueden ser feministas" *El Salto Diario*.

9. REAS Euskadiren web-orria: www.reaseuskadi.eus

gea dugu.¹⁰ Hori 2018ko martxoan sartu zen indarrean eta, Kontratazio Publikoari buruzko Europako Direktibak aplikatuz, argi eta garbi adierazten du derrigorrezkoa dela klausula horiek kontratazio publikoko prozesu guztietan aplikatzea.

2019ko apirilean, Iruñeko Udalak Kontratazio publiko estrategiko eta sozialki arduratsurako jarraibidea onartu zuen. Honek kontratazio publikoak gizartean duen eragina egiaztatze eta ebaluatze sistema bat txertatzen du.¹¹

Hala eta guztiz ere, zenbait eragile ekonomiko politika horien aurka agertu dira. Horren adibide da Iberdrolak, Endesak eta Gas Natural Fenosak Madrileko elektrizitate-horniketa publikoaren esleipen-prozesuari aurkeztutako errekurtsioa; izan ere, horren arabera, energia iturri berriztagarrietatik etortzen zela bermatzea beharrezkoa zen. Azkenean, horri aurkeztutako errekurtsioak gaitzetsi zituen Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Auzitegi Administratiboak.

Estatu-mailako Lege horretan erosketak publikoari lotutako beste neurri batzuk ere arautzen dira, hala nola kontratuen erreserba eta sorta-arauketa. **Erreserbatutako kontratuak** aukera ematen dute lizitazio batean parte-hartzea enpresa jakin batzuetara mugatzeko, kasu honetan, Gizarteratze-enpresa,¹² gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezi¹³ eta Ekonomia Sozialaren arloko enpresetara.

Sorta-arauketak, bestalde, ETEen eta Ekonomia Sozialaren arloko enpresen parte-hartze handiagoa sustatzea du helburu. Horretarako, bada, arauak sortak osatzea ezartzen du eta sistema hau kontraturen batean ez erabiltzekotan, erabakia justifikatu beharra dago.

Trebatu programa Iruñeko Udalak 2015ean martxan jarritako ekimen bat da, enpresa txikiei eta ESSaren arloko enpresei kontratazio publikoan sartzeko aukera eman nahi diena.¹⁴

Azkenik, erosketak publiko arduratsuen klausulak aplikatzera behartzen duen araudia egon arren, argi dago **borondate politikoa eta baliabideak** beharrezkoak direla kontratazio publikoko ereduak eraldatzeko. Hain zuzen ere, beharrezkoa da teknikari publikoak trebatzea, sentsibilizazioa egitea eta enpresa-ehuna estimulatzea eta kontratazio-prozesuak koordinatzea, izan daitezkeen sinergiak identifikatze aldera.

Zaragozako Udalaren Kontratazio Publikoaren Behatokia udaleko talde politikoek, zenbait teknikariek eta udalak kontratatutako enpresetako atal sindikaletako ordezkariak osatutako aholkularitza-talde bat da. Haren helburua udal-kontratu publikoen segimendua egitea eta horietan dauden gizarte-klausulak betetzen direla bermatzea da.¹⁵

10. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa: <https://labur.eus/f6FSD>

11. Iruñeko Udala (16/04/2019) "Kontratazio publiko estrategiko eta sozialki arduratsurako jarraibidea".

12. Azaroaren 13ko 44/2007 Legeak aintzat hartzen duen figura da. Lege horrek gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta lan-prestakuntza, enplegu arrunterako igarobide gisa, helburu duen enpresa merkantil edo kooperatibak zehazten ditu.

13. Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziak irabazi-asmorik gabeko enpresak dira, eta desgaitasuna duten pertsonak laneratzea dute helburu. Horietan, langileen % 70ek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izan behar dute.

14. REAS Euskadi (28/10/2015) "El Ayuntamiento de Pamplona contratará con pequeñas empresas y entidades de economía social".

15. Behatokiaren web-orria: www.zaragoza.es/ciudad/obscontratacion

3. Bidezko eta genero-ikuspegidun aurrekontu parte-hartzaileak

Aurrekontuak egiteari eta ebaluatzeari dago-kionez, gero eta udal gehiagok txertatzen ari dira genero-ikuspegia. Gero eta gehiago dira ere inbertsio publikoak zehazteko parte hartze mekanismoak ezartzen dituzten udal-erriak. Bi neurri hauek beharrekoak dira udal-kudeaketa demokratizatzeko eta herri-tarren zerbitzura jartzeko.

Lehenik eta behin, genero-ikuspegia udal-aurrekontuetan txertatzeko, teoria ekonomikoek dituzten joera androzentrikoak onartu beharra dago, joera horiek gizarteratze/bazterketa prozesuak aintzat har ditzagun oztopatzen dutela ulertuz. Hala, ekonomia feministaren eremu kontzeptualak barneratu behar ditugu; izan ere, alde batera utzitako esferetan arreta jartzen dute hauek, merkatuaren independentzia zalantzan jarritz eta produkzio- eta bizitzaren erreprodukzio-prozesuen artean dagoen harreman dinamikoa argitaratuz, baita nagusi den ereduak sortzen dituen desberdintasunak ere.

Azterketa horretan oinarrituz, baliabide publikoak genero-desberdintasuna ezabatze-ko erabiltzea proposatzen dugu, **gastu publikoko ereduak ebaluatze horiek izan dezaketen eragin bereizia kontuan hartuz**. Hau da, tokiko gobernuek ondasunak eta zerbitzuak finantzatzeko eta emateko duten modua diseinatua, gauzatua eta ebaluatua izan behar da generoa aldagarri garrantzitsu bezala txertatzen duen azterketa-marko baten barruan, gizonen eta emakumeen arteko harreman desberdinak betikitzen ez laguntzeko.

Kalkuluen arabera, gaur egun, 50 herrialdek Genero-ikuspegidun Aurrekontuak egiten dituzte. **Hegoafrikaren** kasuan, adibidez, erakundeek eta parlamentuko indarrek elkarrekin sustatu zituzten horrelako aurrekontuak, horien eragina biderkatuz.

Euskal Herrian, bada, ikuspegi hori txertatu dute hainbat erakundek. Bilboko udalak, esate baterako, esperientzia pilotu bat egin zuen 2005ean UPV/EHUren laguntzaz eta langileak trebatu ondoren. UPV/EHUK ere horrelako prozesu bat abiatu zuen 2011n eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an. Berriki, Eusko Jaurlaritzak 2020ko aurrekontueta-rako jarraibideetan txertatu du ikuspegi hori.

Hain zuzen ere, Genero-ikuspegidun Aurrekontuak ezartzeko lehen urratsa hurrengo ekitaldian egin beharreko diru-sarrera eta gastu publikoen aurreikuspenak jasotzen dituen **kontabilitate-dokumentua aztertzea** da. Hala, emakumeei zuzendutako gastu edo diru-sarrerak ez ezik, aurrekontuaren beste alderdi guztiak ere aztertu behar ditugu. Horren helburua, bada, udal-politiketan berdintasun-printzipioaren zeharkakotasunaren eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzea izango da. Gainera, genero-ikuspegia etengabe txertatzea planteatzen da, bai prozeduran, lantzean eta gauzatzean, bai aurrekontu-ebaluazioan.

Azterketa hau egiteko, beraz, metodologia egoera eta testuinguru jakinetara egokitu eta hainbat mailatan berrikuntzak egin beharra dago. Hori dela eta, zenbait egilek **parte hartzearen** garrantzia azpimarratzen dute; izan ere, gizarte zibil antolatua prestatuago egon ohi da esperimentazio metodologikorako. Halaber, borondate politikoa eta gardentasuna nabarmentzen dituzte hura denboran irautea eta **parte-hartzaileen heziketa** bermatzeko,

nahi prozesua administrazio publikoek egin, nahi gizarte zibil antolatuak egin.

Azkenik, azterketa hau biribiltzeko, bere lanketan genero-ikuspegia txertatzeko helburua duen proposamen bat egin daiteke. Horretarako, hainbat metodologia daude, azterketa eta aldaketa-proposamenak txertatzeko fitxetan eta formularioetan gauzatu ohi direnak. Horiek, ondoren, aurrekontuaren eranskin batean laburbiltzen dira, eta aurrekontuaren segimendua denboran zehar egiteko aukera ematen dute. Zentzu horretan, **urtero jarraipena** egitea gomendatzen dugu. Kontuan hartu beharra dago, hala ere, sortutako aldaketak ez direla berehalakoak; aitzitik, helburua eraldaketak epe luzera sortzea da, eragileen arteko lankidetzaren eta inplikaturako pertsonen sentsibilizazio feministaren bitartez.

Madrilgo Udalak 2016an Genero-inpaktua Ebaluatzeko Batzordea jarri zuen martxan. Hark, Gobernu-batzordeak onartzen duen aurrekontuaren genero-inpaktuari buruzko txostena egiten du.

Bigarrenik, **parte-hartze bidezko aurrekontuak** udal-kudeaketa demokratizatzeko funtsezko neurritzat hartzen ditugu; izan ere, kudeakidetza eta politika publikoen lehenetasunak zehaztea ahalbidetzen dituzte. Gainera, gastu publikoaren gardentasuna eta eraginkortasuna hobetzeaz gain, herritarren parte-hartzea eta baliabide publikoak kontrolatzea susta dezakete.

Parte-hartze bidezko aurrekontu eredu asko daude: elkarte-oinarrikoak, non parte-hartzea elkarte bitartez antolatzen den; oinarri indibidualekoak, non herritarrek banaka parte hartzen duten; edo oinarri mistokoak, hau

da, herritarrek banaka eta elkarte bitartez parte hartzen dutela. Aukeratzen den eredu gorabehera, garrantzitsua da prozesuaren arauketa-eremua guztion artean sortzea eta prozesuarekin batera kalitatezko parte-hartzea sustatzen duten heziketa- eta informazio-neurriak izatea. Funtsezkoa da, halaber, prozesua komunitatearentzat interesgarriak diren politika publikoak lehenestera bideratzea eta ez aurrez diseinatutako politikei buruzko erabakiak hartzea.

:: Gehiago jakiteko ::

- Yago Álvarez (2016) *Descifra Tu Deuda: Guía de auditoría ciudadana municipal*
- Ekonomia Sozialeko Espainiako Enpresa Konfederazioa -CEPES- (2018) *Guía de Compra Pública Responsable y del fomento de la Contratación Pública de entidades y empresas de la Economía Social.*
- EMAKUNDE (2005) *Genero ikuspuntuarekin bertako aurrekontuak*. Udaletako langileak udal-aurrekontuen aplikazioaren genero-ikuspegidun azterketan orientatzeko dokumentua.

Erreferentziazko web-orriak:

- Kontratazio Publiko Arduratsua: <https://contratacionpublicaresponsable.org>
- Gizarteratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuak: www.gizatea.net/eu/erreserbatutako-kontratuak
- ESSa sustatzeko politika publikoei buruz: www.espolitikak.eus

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA

Munduko nekazaritza- eta elikadura-eredua ondorio larriak ditu: gaixotasunak, lan-esplotazioa, lurraz jabetzea, kutsadura, lurzoruaren emankortasuna galtzea, etc. Horren adibide da enpresa handiek bultzatu duten nutrizio-trantsizioa, haragiaren, azukrearen eta koipearen kontsumoa handitu duena. Horren ondorioz, diabetesa, minbizia eta gaixotasun kardiobaskularrak handitu dira eta, hain zuzen ere, munduan, ekidin daitezkeen heriotzen % 21 dieta desegokiaren ondorio dira.¹⁶ Hala ere, agronegozioa hedatu den arren, nekazariak, eta batez ere emakume nekazariak, munduko elikagaien % 70 ekoizten dute.¹⁷ Horrek frogatzen du ekonomia nekazariak direla nagusi den eredu agroindustrialari aurre egiten dioten bakarrik.

Euskal Herriaren kasuan, ustiapen familiarak oso egoera ahulean daude, batez ere Europako merkatuaren integrazioaren, merkataritza-itunen eta nazioarteko lehiakortasunaren logikan oinarritutako politiken ondorioz. Horren adibide gisa, ustiategien hazkundera eta zorpetzea sustatzen duten neurriak ditugu, baita jasangarritasunaren kontakizunean oinarritzen diren markak sortzea sustatzen dutenak ere, nahiz eta marka horiek ez dituzten bidezko prezioak bermatzen ekoizleentzat. Supermerkatuetako apalak "Euskolabel" produktuez beteta daude, baina, egia esan, elikagaien kontsumo nagusia eredu agroindustrial transnazionalan oinarritzen da.

Egoera horren aurrean, elikadura burujabetza alternatiba gisa babestea ezinbestekoa da. Mundu-mailako Vía Campesina mugimen-

16. VSF Herrien Bidezko Elikadura (2016) *Dame Veneno. Viaje al centro de la alimentación que nos enferma.*

17. ETC taldea (2017) *¿Quién nos alimentará? ¿La red campesina alimentaria o la cadena agroindustrial?*

duak, **Nyèlèniko adierazpenean**,¹⁸ honela definitzen du elikadura burujabetza: “Elikadura-burujabetza herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak eta eskuragarriak eta eredu iraunkorren eta ekologikoki ekoiztuak diren elikagaiak izateko duten eskubidea da; eta herriek beren elikadura- zein ekoizpen-eredua erabakitzeke eskubidea”. Baserritarrei, nekazaritzari familiarrari, artisau-arrantzari eta artzaintza tradizionalari boterea emateko estrategia bat da, haiek merkantilizazioaren aurka borrokatzen baitira eta klima-aldaketa aurre egiten baitiote.

Elikadura-zirkuitu laburrak ere elementu zentrala dira. Horiek tokiko produktuak eskuragarri jarri nahi dituzte, alderdi bientzat bidezkoa den prezio batean; batez ere, kontuan hartuta gaur egun Espainiako estatuko biztanleen % 45k ez duela eguneroko elikagai-ahorakinari buruzko gomendioak betetzeko ahalmenik.¹⁹ Zentzu horretan, bada, elikadura bermatzeko ardura kolektiboa aldarrikatzen dugu. Horrek begirada zabaltzera garamatza, etxea ere “elikadura zirkuituan” sartuz.

Beraz, elikadura burujabetzaz ari garenean, proposamen integral batez ari gara, bai elikagaien ekoizpen-baldintzez eta merkaturatze-bideez, bai kontsumo-ereduaz eta elikadura bermatzeko arduraz kezkatzen dena.

4. Tokiko ekoizpen agroekologikoko sareak

Elikadura burujabetzak proposatzen duen neurri nagusietako bat elikagaien ekoizpena birlokalizatzea edo tokira ekartzea da, ekoizpen-eredu agroekologiko batean oinarrituz.

Etxaldek²⁰ honako helburu hauek ezartzen ditu elikadura burujabetzan oinarritutako ekoizpen baterako: “ekoizpen prozesuan gehiago autonomiara heltzea, baliabide propioak gailenduz [...]; kontsumitzailearentzako gardentasun osoa bermatuz produkzio, eraldaketa, merkaturatze eta bukaera prezioaren eraketa prozesuan; gure ekoizpena bertako merkatuetara bideratu [...]; gure herri eta herrialdeetako garapen lokalaren parte aktiboa izatea”.

Euskal Herrian, irizpide agroekologikoak eta elikadura burujabetzakoak dituzten ekoizpen eta eraldaketa-esperientzia ugari ditugu. Erronka, bada horien irismena handitzea da, bai eta horiek sendago eta iraunkorrago egiteko moduak bilatzea ere, batez ere horiek sustatzen dituzten pertsonentzat. Bide horretan, tokiko eta eskualdeko sareak funtsezkoak dira. Era berean, ezinbestekoa da instituzioek tokiko nekazaritza- eta elikadura-sistemak dinamizatzea. Urduñako esperientzian oinarrituz, Marijo Imazen arabera²¹, helburu hori gauzatzeko lan integral bat egin behar da, kontuan hartzen dituen, alde batetik, sektorearen prestakuntza eta indartzea eta, bestetik, babes-neurri zehatzak eta udalerraren inplikazioa lortzeko jarduerak.

Zeberioako Udalak 2015ean onartutako **Hiri-Antolamendurako Plan Orokorrak**, parte-hartze prozesu baten bitartez, hainbat irizpide ezarri zituen, hala nola “balio agrologiko handieneko lurzorua babesteko neurriak, nekazaritzari lotuta ez dauden erabileren aurrean” edo “nekazaritza-erabileren askotarikotzea, produk-

18. Via Campesina (2007) *Nyèlèniko Deklarazioa*.

19. VSF Herrien Bidezko Elikadura (2016) *Dame Veneno. Viaje al centro de la alimentación que nos enferma*.

20. Etxalde (2018) *Elikadura eta horren ekoizpena, Euskal Herriaren orain eta etorkizunaren giltza*.

21. Sigi Saga (2019) Bideoa: Marijo Imazi elkarrizketa, *Curso Internacional Alternativas en transición hacia una economía popular*.

tu ekologikoen sarrera, nekazaritza transgenikoen debekua”.²²

Hona hemen har daitezkeen neurri jakin batzuk: **udal-tasak** doitzea, progresiboak izan daitezen eta garapen-ereduaren eraldaketa susta dezaten (adibidez, irizpide sozial eta agroekologikoak dituzten ustiapenentzat tasa-salbuespena edo -murrizketa aplikatuz eta, aldi berean, udalerrian inpaktu negatiboak sortzen dituzten jarduera ekonomikoentzat baldintzak gogortuz). Beste arauketa-bide bat **hiri-antolamendua** da; izan ere, horrek lurzorua erabileran aldaketak egitea eta, lurra lortzeko aukerak erraztearren, **lurrak erostea edo erreserbatzea** ahalbidetzen du. Hirien eta metropoli-barrutien kasuetan, are garrantzitsuagoa da nekazaritza-eremuak lurraldeko aktibo estrategikotzat hartzea.

Antzuolako Ernaberritu proiektuak lehen sektorearen eta lurzoruen egoeraren (erabilera, jabetza eta egokitzapena) diagnostiko bat sustatu zuen. Horretan oinarrituz, hainbat neurri sortu ziren parte-hartzearen bitartez, hala nola baso-lurrak larre bihurtzea eta lurrak erostea gazteei sektorean sartzeko aukera ematearren.

Beste alde batetik, lehen sektorea dinamizatze eta ekoizpen agroekologikora igarotzeko estrategia gauzatzeko beharrezkoa da horretan lan egiten duen udal-egitura bat eta zerbitzu eta laguntza espezifikoak izatea. Lehen urratsa, bada, **heziketa** da, bai jada sektorean lan egiten dutenentzat bai instalazio berriak sustatzeko eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzeko. Horretarako, neka-

zaritza-sektorea udalerriko edo eskualdeko enplegu-planetan sartu eta enplegu agroekologiko berriak sortzen lagundu beharra dago, ekonomia sozial eta solidarioaren eskutik. **Laguntza** zuzenak eta diru-laguntzak ere garrantzitsuak dira, baita kreditu publikoa edo Banku Etikoekin batera ematen duten programak proiektu berriak martxan jartzen edo horien iraunkortasuna bermatzeko inbertsioak egiten laguntzeko helburua dutenak. Hala ere, laguntza-lerroek ez lukete ustiapenen hazkundea eta zorpetze eutsiezina sustatu behar, baizik eta iraunkortasuna eta antolakuntza, bai sektorean bertan eta bai ekoizleen eta kontsumitzaileen artean.

Urduñako Belarraren Taldeak abeltzaintza estentsibo agroekologiko baterako trantsizioa sustatzen du 2007tik, larreen maneia hobetuz, abere-karga txikiagotuz eta abereen txandaketa hobetuz. Horretarako “baserritarrez baserritar” metodologia erabiltzen du; izan ere, horren bitartez “eurek lehentasunak ezartzen dituzte eta beren lursailetan esperimentatzen dute”.²³

Halaber, eraldaketa- eta banaketa-**azpiegiturak** beharrezkoak dira, udal-kudeaketa zuzenekoak zein ekoizle-elkarteen esku jarriak. Eraldaketaren kasuan, esnari edo fruituei eta barazkiei balio handiagoa emateko eta eraldaketa eta banaketa enpresen menpe ez egoteko balio duten artisau-lantegiez ari gara, baita hiltzegei eta zatiketa-gelez ere, zirkuitu-laburrak abeltzaintzan aplikatzeko balio dutenak. Gainera, udal-arauak alda daitezke osasun eskakizunak egokitze.

22. Zeberio HAPO. Helburuak eta irizpideak (2015)

23. EHKO (2013-2014) “Otras formas de comunicar: El Grupo de la Hierba de Orduña”, *EhkoLurra*, n.º52.

Zeberion, 15 baserritarrek, udalaren laguntzaz **Maskilu Kontserbak** sortu dute. Hura ekoizleen produktua eraldatzeko lantegi komunitarioa da. Hala, kontserba-errezetak berreskuratzen dituzte eta ikastaroak antolatzen dituzten beren ezagutzak partekatzen.²⁴

Azkenik, nekazaritzan eta elikaduran **emakumeek egin duten ekarpenaren ez ikusi historikoa konpontzea** garrantzitsua da: haiek mantendu dute bioaniztasuna, lursail txikiak lantzen jarraitu dute eta tokiko elikadura-sistemak mantendu dituzte; aitzitik, nekazaritza-sektorearen industrializazioak landa-eremuaren maskulinizazioa eta zahartzea ekarri du.²⁵ Hori dela eta, plan espezifikoak garatu beharra dago lurra eta ustategiaren jabetza lortzeko aukera bermatzeko, soldata-arrailarekin amaitzeko, emakumeak berezko diru-sarrerak izan ditzan eta diru-sarreraren banaketan dagoen desberdintasunari aurre egiteko.

Etxaldeko Emakumeak kolektiboak feminismoa aldarrikatzen du elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduari barruan; baita emakume baserritarrek mugimendu feministan izan duten papera ere.²⁶

5. Tokiko merkaturatze-zirkuituak eta azpiegitura logistikoak garatzea²⁷

Tokiko elikadura-sistemak bultzatzeko eta nazioarteko merkatuen eta enpresa handien garrantziari aurre egiteko, elikagaiak zirkuitu laburretan banatzea erraztu behar dugu, banatzaile handiak saihestuz eta elikagai osasungarriak alderdi bientzat prezio onean banatzea bermatuz. Zentzu horretan, VSF erakundearen arabera, “ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko logistika hobetuko balitz, elikagai ekologikoen prezioa % 30-50 murriztuko litzateke”.²⁸

Merkatu Soziala REAsek sustatutako ekoizpen-, finantzaketa-, merkaturatze- eta kontsumo-eremu alternatiboa da. Horretan ekimen sozioekonomiko alternatibo eta solidarioak eta kontsumitzaile indibidual zein kolektiboak biltzen dira.²⁹

Gure herri eta hirietan hedatu diren kontsumo-taldeak zirkuitu laburrak sortzeko lehenengo urrats bat izan dira. Horiek, baserritarren eta kontsumitzaileen artean azpiegitura handirik gabe salmenta zuzena egiteko aukera eman dute. Tokiko merkatuak ere salmenta zuzeneko gunek dira, azpiegitura handirik behar ez dutenak, eta azkeneko urteetan horiek biziberritzeko ahalegin bat egin da.

24. Maskilu Kontserbak elkartearen web-orria: <https://maskilukontserbak.org>

25. Bizilur eta Etxalde (2015) *Euskal Herrirako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten. Elikadura burujabetza abiapuntu, tokiko politika publikoak eraikitzeke zenbait proposamen*.

26. Informazio gehiago Elikaherriaren web-orrian: <https://www.elikaherria.eus>

27. Pedro Lloreti (CERAI), Mikel Kormenzanari (Bizilur) eta Miren Saizi (Bizilur) eskertu nahi dizkiegu atal honetan egindako ekarpenak.

28. VSF Herrien Bidezko Elikadura (2016) *Viaje al centro de la alimentación que nos enferma*.

29. Merkatu Sozialaren web-orria: www.merkatusoziala.eus



Basherria sarea Gipuzkoako 40 kontsumo-taldek osatzen dute eta konfiantzan eta bidezko prezioetan oinarritzen den banaketa-modu baten adibidea da.³⁰

Hala ere, salmenta zuzeneko estrategia horiek ez dute gertuko kontsumoaren eskala eta irismena handitzeko aukerarik ematen. Gainera, baserritarrei ahalegin handia eskatzen die; euren denboraren zati handi bat banaketan eta salmentan ematen baitute ekoizpenean eman beharrean. Horren ondorioz, beste banaketa-bide batzuk martxan jartzen ari dira, tokiko ekoizpena kate handiak saihestuz merkaturatzeko helburua dutenak.

Labore Bilboko lehen supermerkatu kooperatiboa da. Bere helburua gertuko elikagai osasungarriak bidezko prezioetan saltzea da, ekoizleekiko tratu zuzenaren alde eginez.³¹

Hala, lehenengo adibide gisa, **erosketa publikoan** banaketa-kanal alternatiboak bilatzea dugu. Horretarako, gizarte-klausulak eta sorten zatiketa ezarri daitezke kontratu eta lizi-

tazioetan³² baina, aldi berean, lan integralagoa egin beharko dugu banaketa-kanal alternatibo horien garapena sustatzeko eta babesteko. Adibidez, erosketa-zentralen bitartez; izan ere, hauek udal-sukaldeak (eskolak, egoitzak, eguneko zentroak, etab.) elikagaiz horni ditzakete eta logistika errazten dute, bai sukaldeak kudeatzen dituzten pertsonentzat bai horiek elikagaiz hornitzen dutenentzat.

Ecocentral Kataluniako enpresa bat da. Honek, hainbat eskola-jantokirako erosketak zentralizatzen ditu, garraio-kostuak murrizteko eta, nekazariekin aurrekontratuak sinatuz, laboreen programazioa errazteko, horren bitartez hornidura bermatuz.³³

Beste alde batetik, sukalde publikoez gain, jasangarritasun irizpideen arabera produzitutako gertuko produktuak biztanle-maila guztien eskura jartzea beharrezkoa da. Horiek ezin dute enpresa handien negozio-nitxo bat izaten jarraitu eta, era berean, ezin dira eremu "militanteetan" edo partaideen konpromiso handia eskatzen duten eremuetan bakarrik izan. Helburu horrekin, beraz, herriko denak produktu horiek banatzeko bide bezala

30. Basherriaren web-orria: www.basherriarea.eus

31. Laborearen web-orria: www.laborebilbo.eus

32. Kontratazio publikoaren arloko alternatiben azterketa sakon baterako ikus "Aurrekontua eta zorra" atala.

33. Ecocentralen web-orria: <https://ecocentral.es>

berreskuratzea proposatzen dugu, logistika erraztuz eta bitartekariak produktua garestitzen ez dutela bermatuz.

Zentzu horretan, Mercabilbao bezalako **handizkako merkatu** handiek jokatzeko duten papera erabakigarria da, saltoki txikietan saltzen diren elikagaien zati handi bat banatzen baitute eta, beraz, eraldatzeko ahalmen handia izango lukete beren kudeaketan irizpide agroekologikoak sartuko balituzte. Lehen urratsa, gertuko produktu ekologikoen eremu bat sortzea izan liteke. Horretan, katea osatzen duten eragileak prezioak, irizpide ekologikoak eta banaketa-orduak adostuko lituzkete. Hori da, hain zuzen ere, Bartzelonarako nekazaritza- eta elikadura-politikak zehaztu zituen *Llaurant Barcelona* prozesu kolektiboak proposatzen duena.³⁴

Valentziako Tira de Contar merkatua XII. mendean sortu zen eta gaur arte iraun du. Horretan, Valentziako ortuko nekazari txikiek zuzenean saltzen dute euren produktua. Gaur egun, Mercavalenciaren egoitzan kokatzen da eta, hortaz, hura salmenta zuzena eta banaketa handia elkartzen dituen adibide bakarra da.

Neurri hura **herrietan eta barrutietan erosketa-zentralekin** uztar liteke; izan ere horiek, tokiko banaketa-kanal berriak zabaltzen lagundu dezakete eta tokiko merkatuekin, denda txikiekin, kontsumo taldeekin eta eskola jantokiekin lan egin dezakete, gertuko elikagai ekologikoak eskuratzeko aukera emanez eta horien salmentaren eskala handituz.

Ekoalde Nafarroako ekoizpen ekologikoaren bilketa- eta logistika-zentroa da, honako hauek sustatua: Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Kontseilua (CPAEN-NNPEK), Enpresa Ekologikoen Elkarte (AEN) eta Nekazaritza eta Elikadura Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua (INTIA). Horren helburua sektorea dinamizatzea eta elikagai ekologikoen banaketan lankidetzaz erraztea da. Hala, hainbat ekoizleri erosiz, jatetxeak, eskola jantokiak, denda txikiak eta kontsumo-taldeak hornitzen ditu.³⁵

6. Ardura publiko-komunitarioa elikadura osasungarri, bidezko eta iraunkor bat lortzeko³⁶

Nekazaritza- eta elikadura-eredua eraldatzeko kontsumoaren arloan ere lan egin beharra dago. Hala, elikadura osasungarria, bidezkoa eta iraunkorra bermatuz nekazaritza- eta elikadura-zikloa nola itxi aztertu behar dugu. Horretarako, bada, elikadura bermatzeko ardura etxeetatik atera eta ardurakidetzaz publikoa, soziala eta komunitarioa ezarri behar dugu. Zentzu horretan, zenbait herritan tokiko edo eskualdeko **elikadura-kontseiluak** sortu dituzte eta horiek arlo horretan parte hartzen duten eragile guztiak biltzen dituzte (ekoizle eta dendetatik, eskolako familia-elkarte edo auzoko elkarteetara), lurraldean finkatutako eta landa eta hiria konektatzen dituen gertuko elikadura agroekologikoa lortzeko bidean.

34. Llaurant Barcelona (2016ko azaroa) *Medidas para construir soberanía alimentaria en Barcelona*.

35. Ekoalderen web-orria: www.ekoalde.org

36. Isa Álvarez (Urgenci) atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiogu.

Bristolgo elikadura-kontseiluak egin-dako lehen urratsetako bat hiriko neka-zarritza- eta elikadura-katearen egoera ezagutzeko auditoietza bat egitea izan zen. Hala, lurzoru emankorra galtzen ari zela eta auzo askotan fruta eta barazki freskoak saltzen zituzten dendak desagertzen ari zirela ikusi zuten. “Janari onaren” ideia oinarri diren hiru printzipio ezarri zituzten: pertsonentzako ona, lurralderako ona eta planetarako ona.³⁷

Gertuko elikagai osasungarriak eskuratzeko aukera hobetzeko, Elikadura-kontseiluak, lehenik, arrazoizko prezioak bermatzeko neurriak sustatu beharko lituzkete. Horretarako baliagarriak dira tokiko ekoizpena eta banaketa sustatzeko neurriak.

2011. urtez geroztik, **Baztanen** elikadura burujabetzaren aldeko apustu argia egin dute, landa-eremua bizirik mantentzeko eta hainbat eragile inplikatzeko apustu estrategiko gisa. Horren ondorioz, Elikadura Kontseilua sortu da eta, besteak beste, gertuko eraldaketa-azpiegiturak, Agroekologiako Herri-eskola bat eta nagusientzako janari-banaketa zerbitzu bat sortu dituzte.³⁸

Bigarrenik, eskoletako, egoitzetako, eguneko zentroetako eta abarreko **jantoki publikoak** eraldatzea proposatzen da; bai dinamizazio-nukleoak izateko duten ahalmenagatik, bai elikadura-katearen zikloa ixteko ardura despribatizatzeke eta desfeminizatzeke duten ahalmenagatik. Jantokien eraldaketak menuen nutrizio-kalitatea hobetzea eskatzen du,

barazki gehiago eta animalia-proteina gutxiago erabiliz; baita ur- eta karbono-aztarna murriztea ere, tokiko produktu agroekologikoa erosi bitartez.

Chef 2020 sarea, besteak beste, Menjadors Ecològics elkarteak sustatzen du eta Aragoiko, Andaluziako, Kanarietako, Kataluniako, Madrileko, Nafarroako eta Balearretako hainbat sukaldarik osatzen dute. Horren helburua, elikadura-eredu aldaketan, sukaldarien garapen, trebakuntza eta sendotzerako erreferentziazko ereduak sortzea da, sukaldaritzako irizpide teknikoak erabiliz.³⁹

Gaur egungo elikadura-inguru osasungaitza eraldatzeko lan egin behar dugu, sektorean enpresek duten botereari aurre eginez, arauketaren bitartez eta elikadura kritiko baten aldeko hezkuntza-proposamenak erabiliz. Udal-eskumenak kontuan hartuz, garrantzitsua izan daiteke honako neurri hauek hartzea: **publizitatea murriztea**; eremu publikoetan OMEk gomendatutako nutrizio-profilak betetzen ez dituzten, substantzia kimiko kaltegarriak dituzten edo osasun publikoari kalte egin diezaioketen elikagaien salmenta mugatzea; eta publizitate iruzurtiaren aurkako kanpainak abiatzea.

Iruñean, udal-haurreskolen jantokien kudeaketa ez dago azpikontratatuta eta honek kudeaketa hura eraldatzea erraztu zuen. Tokiko ekoizpenaren aukerak kontuan hartuz eta menuak berregiteko laguntza teknikoaren bitartez, 13 sortatan banatutako hornidura-lizitazio bat egin zuten, produk-

37. Kontseiluaren web-orria: <https://bristolfoodpolicycouncil.org>

38. Ettxalde (2018ko iraila) “Elikadura jendarte osoa zeharkatzen duen gaia da, herri guztia proiektu bateratu batean engaiatzeko alimaleko aukera”.

39. Sarearen web-orria: www.menjadorsecologics.cat/chef

tu bakoitzarentzat irizpide bereiziak zituena. Horren helburua honako hau zen: produktuaren % 80 200 km baino gutxiago garraiatzea.⁴⁰

Beste alde batetik, hezkuntza-arloan, **esko-la-jantokiak hezkuntza-eremu bilakatzea** funtsezkoa da. Halaber, elikadura-osasuna curriculumean sartu beharra dago. Gainera, eskolako elikadura-ingurua arau daiteke (eskolan eta eskolatik kanpo). Londresen, adibidez, eskoletatik 400 metrora janari-lasterreko denda gehiago zabaltzea debekatu dute.

Larrabetzuko eskola-jantokiaren kasuan, Guraso elkarteak kudeaketaz arduratzen da, irizpide ekologikoak erabiliz. Gainera, jantokia hezkuntza-eremu bihurtu dute.⁴¹

:: Gehiago jakiteko ::

- VSF Bidezko Elikadura (2016) [Dame Veneno. Viaje al centro de la alimentación que nos enferma.](#)
- Bizilur eta Etxalde (2015) [Euskal Herri-rako bestelako bizitza-ereduak lortzeko burujabetza ereiten.](#)
- Llaurent Barcelona (2016ko azaroa) [Medidas para construir soberanía alimentaria en Barcelona](#)
- Abel Esteban, J.L. Fdez.-Casadevante eta Luis González (2019) [Alimentar el cambio, Libros en Acción](#)

Erreferentziako aldizkariak:

- [Etxalde nekazaritza iraunkorra](#)
- [Soberanía Alimentaria, Biodiversidad y Culturas](#)

Erreferentziako web-orriak:

- Milaneke ituna:
www.milanurbanfoodpolicypact.org
- Alternatibak eta politika publikoak elikatzen:
<http://politikak-elikatzen.bizilur.eus>
- Eskola-jantokiak:
www.menjadorsecologics.cat

40. Iruñeko Haurreskolen zerbitzuko Alfredo Hoyuelosekin egiaztatutako informazioa.

41. Informazio gehiago hemen: www.larrabetzu.eus

ENERGIA, URA ETA HONDAKINAK

Klima-krisiak eta planetaren mugek sistemaren biziraupena arriskuan jartzen dute. Horien aurrean, botere korporatiboak ematen dituen irtenbideak merkantilizazio eta pilatze prozesuak sakontzean oinarritzen dira. Horrek ondorio larriak ditu eta, energiaz, hondakinez edo uraz ari garenean, horiek begi-bistakoak dira; hala nola, pilatzearen, pribatizazioaren, estraktibismoaren, kutsaduraren eta baliabideak agortzearen ondorio ekologikoak edota bizitzaren-ugalaketaren aurkako inpaktuak, megaproiektu handien edo funtsezko hornigaiak eskuratzeko zailtasunen ondorio direnak.

Euskal Herrian, baliabideen agortzearen aurrean ematen diren irtenbideek bi ereduren arteko gatazka erakusten dute. Alde batetik, eutsiezintasuna, merkantilizazioa, pilatzea eta pribatizazioa areagotzen duten irtenbideak proposatzen dituzte; bestetik, iraunkortasunean, jabetza eta kudeaketa publiko edo kooperatiboan, deszentralizazioan, desmer-

kantilizazioan eta komunitatearen inplikazioan oinarritzen diren alternatibak ditugu. Azken hauek ur, energia eta hondakinen kudeaketako oinarritzko beharrak asebate nahi dituzte modu iraunkor eta bidezko batean.

Hain zuzen ere, energia arloan, botere korporatiboarekiko gatazka hainbat mailatan ematen da. Honako hauek dira horietako batzuk: megaproiektuen aurrean dauden erresistentziak, hala nola Nafarroako ziklo konbinatuko zentral termikoen, goi tentsioko lineen edo frackingaren aurrekoak; trantsizio energetikorako ekimenak sustatzea, hala nola sentsibilizazioa, efizientzia energetikoa eta autohordinakuntza; pobrezia energetikoaren aurkako borroka; eta, bereziki, kontsumoa eta ekoizpena herriratzeko eta kooperatibizatzeke ahaleginak, horrek kudeaketa jasangarriago, deszentralizatuago eta demokratikoago bat ahalbidetzen baitu.

Urari dagokionez, Euskal Herrian botere korporatiboarekiko gatazka ezkutuagoa da baina asmo pribatizatzailea oso presente dago, batez ere aliantza publiko-pribatuak hedatu bitartez. Arrisku horrekin batera ur-baliabideen kudeaketa txarra eta gehiegizko kontsumoa dugu, hauek ereduaren iraunkortasuna arriskuan jartzen dutelarik. Era berean, uraren kudeaketa partzuergo handietan zentralizatzeko joera dago, udal- eta eskualde-kudeaketaren orde. Beraz, funtsezkoa da uraren kudeaketa deszentralizatua babestea, pribatizazio-prozesuak gelditzeko eta azpiegitura iraunkorrak garatzeko, lurraldearen benetako beharrei egokitzen direnak.

Azkenik, hondakinei dagokionez, botere korporatiboa hondakinak murrizteko helburua ez duen kudeaketaren alde dago. Aitzitik, helburua errentagarritasun handiena lortzea da, horrek azpiegitura handi, kutsatzaile eta arriskutsuak eskatzen baditu ere. Ondorio horien adibide dira Zabalgarririk bere tximinia-tik atmosferara isurtzen dituen 180.000 tona hondakinak.⁴² Eredu horren aurreko alternatibek zero hondakin lortzeko helburua izan behar dute, tokiko kudeaketa jasangarri baten eta udalerrri osoaren inplikazioa eta parte-hartzearen bitartez.

7. Parte-hartze publikoa eta komunitarioa elektrizitate-sistemen kudeaketan⁴³

Energiarekin lotutako udal-eskumenik ez izan arren, tokiko eremutik hainbat alternatiba eta neurri jar daitezke martxan baliabideen kontrol eta kudeaketa publikoan eta herritarren parte-hartzean oinarritutako energia-eredu iraunkorra eta gertukoa lortzeko.

Xabier Zubialdek bere *Hacia la soberanía energética: Crisis y soluciones desde Euskal Herria* (Txalaparta, 2017) liburuan lurralde baten energia-egoerari buruzko auditoretzak egitea proposatzen digu. Horren helburua, eskaria murrizteko, tokiko ekonomia sustatzeko eta gizartearen sentsibilizatzeko neurriak dituen udal-plangintza proposatzea da.

Merkaturatzearen eta kontsumoaren ikuspegitik, kooperatiba elektrikoak funtsezko alternatiba dira, bai energia berriztagarriak merkaturatzen dituztelako, bai bazkideei eskaintzen dieten kudeaketa demokratiko eta gardenagatik. Kooperatiba horiek, bada, paper garrantzitsua dute trantsizio energetikoan, alderdi teknikoari zein sentsibilizazio eta prestakuntzari dagokionez. Hala ere, "hedatu beharko lirateke eta produzitutako eta merkaturatutako energia kopurua handitu, berriztagarrietarantzko trantsizio demokratikoa, banatua eta iraunkorra bultzatzeko".⁴⁴ Zentzu horretan, bada, babes publikoa funtsezkoa da, esate baterako, Erosketa Publiko Arduratsuaren bitartez.

Euskal Herrian, energia berriztagarrien ekoizpen- eta kontsumo-kooperatiba bi daude. REAS Euskadiren parte den **GoiEner**, 10.000 bazkide baino gehiago dituena; eta **Energía Gara**, estatu-mailan 65.000 bazkide baino gehiago dituen Som Energia kooperatibaren parte dena.⁴⁵

42. Ekologistak Martxan (2016) *Hiri Hondakinen kudeaketa eta tratamendua Bizkaiko Lurralde Historikoan*.

43. Goienerri eta Xabier Zubialderi atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiegu.

44. Íñigo Capellán, Álvaro Campos eta Jon Terés (2018) "Las cooperativas de energías renovables como un instrumento para la transición energética en España", *Energética*.

45. Web-orriak: www.somenergia.coop eta <http://www.goiener.com>



Ekoizpenaren aldetik, elektrizitate-ekoizpena iturri iraunkorren bitartez handitzea da aurrean dugun erronka nagusietako bat. Kooperatibek garatutako estrategien artean finantzaketa banatuko prozesuak ditugu, ekoizpen-proiektuak sustatzeko.

Recupera el Sol Ecooo eta Som Energiak abiatutako ekimena da, porrot egindako instalazio fotovoltaikoak kolektiboki berreskuratzeko helburua duena, horiek putre-funtsen eskuetan gera ez daitezen.⁴⁶

Udalei dagokienez, **elektrizitateko udal-operadoreak** sortzeko proposamena garatzen ari da. Horiek fase guztietan eragiteko aukera ematen dute, ekoizpenetik merkaturatzera. Lehenengo urratsa udal-instalazioen autohornikuntza elektrikoa izango litzateke, eta udal-instalazioetan, etxebizitzetan eta enpresetan efizientzia energetikoa eta kontsumoa murriztea sustatzea. Beste alde batetik, inplikazio publikoa handiagoa balitz, enpresen eta etxebizitzaren autohornikuntza finantzatzeko edo energia ekoizteko proiektuak sustatzeko aukera legoke.

46. Informazio gehiago hemen: <https://blog.somenergia.coop/recupera-el-sol>

Oñatiko zentral hidroelektrikoek 6.000 etxebizitzarako energia ekoizten dute eta horiek udalak kudeatzen ditu, Nafarkoopen bitartez eta komunitatearen parte-hartzearekin. Parte-hartze hori [SorkWhitza](#) proiektuaren bitartez lortutako finantzaketari esker izan da posible.⁴⁷

Elektrizitatea merkaturatzeko aukerak elektrizitatearen oligopolioari aurre egiteko aukera ekarriko luke eta, aldi berean, energia-politikaren eta pobrezia energetikoari buruzko gizarte-politiken integrazioa erraztuko luke. Horrek, bada, argia moztea ekidin eta fakturak ordaindu ezin duten pertsonen estigmatizazioarekin amaituko luke, horietako gehienak emakumeak direlarik.

Iruñeko Udalak energiako udal-operadorea sortu zuen 2018an, energia berriztagarrien ekoizpen eta banaketan parte hartzeko. Horren helburua, bada, udal-instalazioak eta pobrezia energetikoko egoeran dauden etxebizitzak hornitzea da.

Herritarren energia-komunitateak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, edo merkataritzakoa ez den asmo soziala dutenak. Tokiko energia-ekoizpena, -banaketa, -metaketa, -hornikuntza edo efizientzia energetikoko zerbitzuak sustatzen dituzte. Asmoa herritarren paper proaktiboa sustatzea da, energia berriztagarrietan oinarritutako trantsizio ekologikoa bultzatzeko, energia-sistema demokratizatze eta energiarako eskubidea bermatzeko, batez ere ahultasun edo pobrezia energetikoko egoeretan. Hala, komunitate horiek asoziazio-formula desberdinak izan ditzakete; horien artean, batez ere, kooperatibak ditugu. Europar Batasunak oinarriak ezarri dituen arren, Estatu kideek garatu behar dute kontzeptua. Guk, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioetan oinarritutako eredu kooperatiboen alde egiten dugu.

Belgikako **Oud Heverlee** herriko hamabi etxebizitzak proiektu pilotu batean parte hartzen dute, Herritarren Energia-komunitate bat osatuz iturri berriztagarrien bitartez energia ekoizteko, metatzeko eta partekatzeko helburua duena.⁴⁸

Azkenik, aipatu beharra dago, Europako Batzordeak 2016an onartutako “Neguko pakte”aren ondorioz, aukera berriak sortu direla **herritarrek tokitik abiatutako trantsizio energetikoaren erdian** kokatzeko. Energia berriztagarriaren sustapenari buruzko Direktiba horren arabera, Estatu kideek bermatu behar dute kontsumitzaileek beren energia berriztagarria ekoizteko, kontsumitzeko, metatzeko eta saltzeko duten eskubidea. 2019ko martxoan Europako Legebiltzarrak onartutako ebazpen batek **herritarren energia-komunitateak** arautzen ditu.

8. Uraren tokiko kudeaketa jasangarria⁴⁹

Uraren kudeaketa jasangarrirako lehen elementu bat **kudeaketa publiko zuzena babes-tea** da, eta kudeaketa neurri batean edo guztiz pribatizatua izan bada, hura berrudalekotuz berreskuratzea. Prozesu horiek desberdinak izango dira testuinguru bakoitzean, zerbitzuaren pribatizazio-maila eta kontratuen egoeraren arabera. Hala ere, ur-hornikuntza

47. Informazio gehiago hemen: <https://nafarkoop.eus>

48. Isabel Marques (20/05/2019) “Producir y vender energía limpia, a nivel local” *Euronews*.

49. Iratxe Arriolari atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiogu.

eta -saneamendua arautzeko eta kontrolatzeko ahalmena beti da udalarena. Hori dela eta, kudeaketa azpikontratatuta badago ere, kontrol- eta ikuskapen-egitura municipalak edukitzea funtsezkoa da, kontratuak betetzen direla bermatuko eta, berrudalekotze bati begira, txostenak prestatuko dituen.

Kontzesioren bat indarrean badago, zerbitzua berreskuratzeko modu bakarra enpresa emakidadunari kalte-ordaina ematea da. Kalte-ordain hori aldatu egingo da geratzen diren kontratu-urteen arabera eta zerbitzua ematean akatsak izan direla frogatzeko gaitasunaren arabera. Bestalde, kontratua amaitzeaz badago, egoera askoz hobea da. Kasu horretan, garrantzitsua da instalazioak kontratuan ezarritako baldintzetan daudela bermatzea, aktiboak zerbitzuaren enpresa titularrari itzuli aurretik. Kontuan hartu behar da, gainera, enpresak prozesua oztoka dezakeela, hainbat baliabide juridiko erabiliz, eta, hortaz, gaitasun tekniko eta gizartearen babesa izan beharko ditugu.

Prozesua sozialki eta juridikoki legitimatzeko funtsezkoa da kudeaketa zuzena askoz errentagarriagoa dela eta zerbitzuaren kalitatea berreskuratzeko eta beharrezko inbertsioak egiteko modua dela frogatzea. Halaber, herritarren eta zerbitzuko langileen inplikazioa lortzeko garrantzitsua da gardentasun- eta partaidetza-mekanismo egokiak sortzea, kudeaketa-eredua, inbertsioak, tarifa-aldaketak edo langileen egoera ezartzeko. Hain zuzen, langileekin gatazkarik ez izateko, lan-egonkortasuna eman behar diegu, baita langile publikoen eskubideak bermatu ere. Hori lortzeko, langileak subroga ditzakgu, langile publiko bezala, eta, aldi berean, lan-deialdietan esperientziak garrantzi handia izatea bermatuko dugu.

Valladolid hirian berrudalekotze prozesu arrakastatsu bat egin dute. Horretan, gizarte-babes zabala izateaz gain, prozesua erraztu duten erabaki teknikoak hartu dituzte. Montoro Legearen mugak bete gabe behar diren inbertsioak egiteko aukera ematen dien forma juridiko autonomo bat aukeratu dute. Gainera, langileen subrogazio-betebeharrak birjartze-tasaren muga gainditzen duela frogatu ahal izan dute.⁵⁰

Bigarrenik, funtsezkoa da **kudeaketa integral edo ekosistemiko** baten alde egitea, hau da, lurraldeari lotua. Nueva Cultura del Agua fundazioak ura aktibo ekosozialtzat hartzen duen kudeaketa eredu bat babesten du. Hala, urak, balio produktiboaz gain, balio ekologiko, emozional eta nortasunekoa du.⁵¹ Zentzu horretan, bada, ura babesten duten kolektiboek Europako Uraren Esparru Direktibara (2000/60/CE) moldatu beharra aipatzen dute. Izan ere, hura duela ia 20 urte onartu bazen ere, oraindik ez da kasu gehienetan aplikatzen. Direktiba horrek, "diru-laguntza publiko masiboetan oinarritutako estrategia estrukturalisten ordeztasun eskariaren kudeaketa-estrategiak eta ur-ekosistemen kalitatea eta osasuna babesteko estrategiak ezartzen ditu".⁵²

EH Bilduren agintaldian (2011-2015), **Busturialdeko Ur Partzuergoa** saneatua izan zen eta kudeaketa erabat publikoa berreskuratu zuen. Partzuergoak zituen arazo ekonomikoak konpontzeaz gain, erronka nagusietako bat uraren zikloaren kudeaketa jasangarria lortzea izan zen, Zadorra-rikiko loturaren menpe egon gabe.

50. AEOPAS (2019) *Manual de remunicipalización de los servicios públicos de agua*.

51. Fundazioaren web-orria: <https://fnca.eu>

52. Urbizi – Ibaien aldeko nafar plataforma (2019) "Comentarios y aportaciones a la Estrategia Marco Integrada del Agua de Navarra 2030".

Estres hidrikoa arintzeko hartu ziren neurrien artean honako hauek ditugu: azpiegiturak berritzea, kontsumo handia zigortzea, edateko ona ez den ura eta euri-urak berrerabiltzea, iragazki berdedun araztegi txikiak egitea eta eukaliptoen landaketa mugatzea.

Urtegiak edo arro arteko loturak bezalako azpiegitura handietan baliabideak xahutu ordez, ur-eskaria lurralde bakoitzeko baliabideetara mugatzea proposatzen dugu, hiri-, nekazaritza-, baso- eta industria-plangintzan esku hartuz eta akuiferoak eta ibaiak zainduz eta leheneratuz. Horren adibide dira “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioaren arabera neurriak, kutsadura saihesteko helburua dutenak; baso monolaborantzek eragiten duten ur-masen galera arintzeko helburua duen ur- eta baso-kudeaketa integrala; edo araztegien kolapsoa saihesten duten hirigintza iragazkorreko ereduetan inbertitzea.⁵³

Azkenik, eskarian esku hartzean oinarritutako kudeaketak **bidezko tarifak** ezarri behar ditu, ingurumen-kostuak barne hartuz eta kontsumoa modu birbanatzaile batean murriztea sustatuz, hau da, familia bakoitzaren kontsumo-mailaren eta egoera sozioekonomikoaren arabera. Zentzu horretan, bada, azpimarratu beharra dago, Europako Direktibak kostuak tarifen bitartez berreskuratzeko printzipioa ezartzen badu ere, printzipio hori ezin dela testuinguru sozial eta geografikotik eta irisgarritasun printzipiotik banatu. Hau da, edozein baldintzatan, ura izateko giza eskubidea bermatu behar da, hornikuntza etetea debekatuz eta familien zorpetzea ekidinez, oinarritzeko

ondasunak eskuratzeko aukera bermatze alderara.

Zaragozan kontsumo-tarteetan oinarritutako tarifa-sistema dute. Horrek sarbide unibertsala bermatzen du. Lehenengo bi tarteek prezio baxuak dituzte eta hirugarrenak (12,5 m³ baino gehiago etxebizitzako eta hileko) kontsumo altua zigortzen du. Horrela, gehikortasun bat lortzen da 1 eta 4,8 arteko prezioekin. Gainera, “aurreztea saritzen” dute, fakturaren %10eko hobaria emanez kontsumoa % 10 murrizten bada aurreko bi urteekin konparatuta.⁵⁴

9. Zero hondakin⁵⁵

Eusko Jaurlaritzaren arabera, hiriko hondakinen birziklatze-tasa ez zen % 42 baino gehiago izan 2016an, Europako Direktibak % 50eko helburua ezartzen duen arren. Hala, eredu hori eraldatzeko beharrezkoa da, lehenik, **bilketa bereizita** hedatzea, birziklatze-tasa handitzeko eta gainerakoaren frakzioa murrizteko. Neurri hura Gipuzkoako zenbait herritan horren inguruan sortutako polemikarekin lotu ohi da baina, gatazkaz harago, birziklatze-tasa nabarmen hazi da neurria ezarritako herrietan. Hernanin, adibidez, 2018an, hiri-hondakinen % 78,68 bereizita kudeatu zituzten;⁵⁶ Oiartzunen, 2014an, % 83,78.⁵⁷ Iparraldeko beste herri batzuetan ere eredu hori ezarri dute, baita Nafarroako Sakanako mankomunitateko herri gehienetan ere.

53. Roberto Bermejo, David Hoyos, Iñaki Lasagabaster eta Ruth Pérez (2015) *Bases para una gestión sostenible del agua en Urdaibai en adecuación la Directiva Marco del Agua*, Ekopol.

54. Joaquín García Lucea (2008) “Experiencia de Ahorro de Agua en la ciudad de Zaragoza” CONAMA.

55. Ekologistak Martxaneko Gorka Buenori atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiogu.

56. [Hernaniko Udalaren web-orritik](#) hartutako informazioa.

57. [Oiartzungo Udalaren web-orritik](#) hartutako informazioa.

Lea-Artibaiko Mankomunitatean sentsibilizazio-kanpaina bat garatu zuten bilketa selektiboa eta auto-konpostajea sustatzeko. Horretarako, “Lurretik lurrera” marka sortu zuten eta 10.486 etxebizitza bisitatu zituzten, informazioa emanez eta materia organikoa bereizteko kitak banatuz. Gainera, poltsa konpostagarriak ere banatzen dituzte; hori izan baitzen etxebizitzak bisitatu zituzten ingurumen-hezitzaileek identifikatu zuten kezketako bat. Sortutako konposta herritarren artean banatzen da prozesuaren emaitzaren erakusgarri gisa.

Bilketa bereizia sustatzeko zaborrontzien erabileraren kontrol pertsonalizatua ere erabil dezakegu, txartel magnetikoen bitartez. Sistema hori Urola Kostan ezarri dute eta, horren bitartez, bilketa bereziko tasa % 70era igotzea lortu dute.⁵⁸ Zamudioren kasuan, udalak pauso bat harago joan nahi du eta txartelen bidezko kontrola, sentsibilizatzeko erabiltzeaz gain, zaborrontzi grisaren erabilerari zerga ezartzeko erabiliko du, hura astean behin baino gehiago erabiltzen bada.⁵⁹

Bigarrenik, **materia organikoa konpostatzea** funtsezko neurria da. Materia organikoa etxebizitzetan sortzen diren hondakinen % 40 da eta hura konpostajearen bitartez kudeatzea erraustea baino merkeagoa da eta ingurumen-inpaktu gutxiago ditu. Hortaz, bilketa bereizia sustatzea oso garrantzitsua da hondakin organikoak udal- edo eskualde-azpiegituretan konpostatu ahal izateko. Gainera, autokonpostajea edo konpostaje komunitarioa sustatzeko beste ekimen batzuk ere abian jar daitezke; kasu horietan, azpiegituren kudeaketa udalak edo herritarrek egin dezakete.

Hernanin konpostaje komunitarioko azpiegiturak dituzte eta, urtean, 30 tona materia organikoa biltzen dituzte. Horietan aurkitzen diren hondakin desegokien ehunekoa % 2 baino gutxiagokoa da.

Hirugarrenik, herrietan presioa egitea garrantzitsua da, Ontzien Kudeaketa Sistema Integratuarekin amaitzeko. Izan ere, sistema horrek saldutako ontziak birziklatzeaz ardura daitezen exijitzen die enpresei baina, azkenean, ontzien % 70aren kudeaketaren kostua udalek ordaintzen dute, % 30 baino ez baita bereizita biltzen. **Ontzien Gordailu, Itzultze eta Atzera-emate sistema (GIAS)** alternatiba bat da⁶⁰ eta 10 ontzitik 9 birziklatzea ahalbidetzen du. Horretan, ontziratutako produktuen prezioari kopuru txiki bat gehitzen zaio eta hura ontzia denda berean edo beste batean bueltatzean berreskuratzen da. Sistema hori autonomia-erkidego mailan sustatu behar bada ere, herriek horren alde presionatzea garrantzitsua da, haiek baitira indarrean dagoen sistemaren efizientzia eza gehien pairatzen dutenak.

Azkenik, hondakinen **kudeaketa zuzena edo publiko-komunitarioa** berreskuratu behar dugu. Berezko langileak edukitzeak kudeaketa kostuak murrizten ditu eta zerbitzua hobetzen du. Gainera, udal langileak funtsezko eragileak izan daitezke eredua eraldatzeko eta konpostajea bezalako praktika berriak edo frakzio desberdinen balorizazio materialeko modu berriak garatzeko. Kudeaketa-modu berri horiek ekonomia zirkularra eta tokiko ekonomia sustatzen dituzte. Hala ere, kudeaketa azpikontratu behar izatekotan, garrantzitsua da gizarte- eta ingurumen-klausulak sartzea, baita kontratuen zatiketa ere.

58. [Urola Kostako Udal Elkartearen web-orritik](#) hartutako informazioa.

59. Maialen Ferreira (30/07/2019) “El Ayuntamiento de Zamudio sancionará a los vecinos que no reciclen” [eldiario.es](#).

60. Informazio gehiago Retornaren web-orrian: www.retorna.org

Usurbilen, atez ateko sistemaz gain, zaborra sortzeagatik ordaintzera behartzen duen sistema ezarri da eta horrekin hondakinen % 83 bereizita biltzea lortu dute. Tarifak gehikorak dira, zati finko eta zati aldakor batekin, sortutako errefus kopuruaren arabera. Halaber, hobariak ematen dira familiaren diru-sarreraren edo etxebizitzan bizi diren pertsona kopuruaren arabera, baita autokonpostajea edo konpostaje-komunitarioa erabiltzeagatik ere.⁶¹

:: Gehiago jakiteko ::

- Zubialde Legarreta, Xabier (2017) *Hacia la soberanía energética: Crisis y soluciones desde Euskal Herria*, Txalaparta.
- Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua – IDAE (2019) *Guía con los pasos a seguir para la constitución de comunidades energéticas locales y financiación de proyectos piloto*
- AEOPAS (2019) *Manual de remunicipalización de los servicios públicos de agua*
- Usurbilgo Udala (2017) *Usurbil 0.0 hondakinen prebentzio eta kudeaketa programa*

Erreferentziako web-orriak:

- Energia-eredu berri baten aldeko Plataforma: www.nuevomodeloenergetico.org
- Fundación Nueva Cultura del Agua: <https://fnca.eu>
- Ekologistak Martxan erakundearen Zero Zabor kanpaina: www.ekologistakmartxan.org

61. Usurbilgo Udalaren web-orritik hartutako informazioa: <https://labur.eus/XsGa0>

EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA

Krisi sistemikoak kolokan jarri ditut tokiko ekonomien oinarrian dauden suposizioetako asko, baita ekonomia dinamizatzeko erabili ohi diren estrategiak ere. Gaur egun, “enpresak ez dira modu isolatuan lehiatzen; baizik eta parte diren ekoizpen- eta erakunde-ingurunean lehiatzen dira”.⁶² Hala, tokikoaren balioa handitzen da eta, ondorioz, kapital globalarentzat erakargarriak diren lurraldeak sortzen saiatzen dira. Baina “hiri marka”ren bitartez, atzerriko inbertsioa erakarritza edo turismoa sustatuz beste hiri batzuekin lehiatzea bilatzen duten ekoizpen-espezializazio estrategia horiek nazioarteko kapitalaren zerbitzura jartzen dituzte lurraldea eta bere biztanleak.

Euskal Herriaren kasuan, industriak eta eraikuntzaren sektoreak garrantzi handia dute eta garraioaren, komunikazioaren eta zerbitzu publikoen hirugarren sektoreko adarretara bideratutako espezializazioa dago. Balio

handiko kultura-, natura- eta paisaia-ondarea duen lurraldea da Euskal Herria, baina etxebizitzak eta azpiegiturak eraikitzekeko presio handiak arriskuan jartzen du ondare hori. Halaber, bertan langabezia-tasak Espainiako estatuko beste herrialde batzuetan baino baxuagoak diren arren, badaude pobrezia- eta langabezia-tasa altuak dituzten eskualdeak.

Gure proposamena hau da: tokiko gizarte- eta ekonomia-garapenerako estrategia endogenoak martxan jartzea, hau da, tokiko baliabideak erabili eta tokiko eragileen gaitasunetatik sortzen direnak; autozentratuak, hau da, tokiko biztanleen beharrak asetzera bideratzen direnak, autosufizientzia handitzeko ekoizpen-dibertsifikazioan inportazioen murrizketan oinarritutako estrategiak erabiltzen dituztenak; eta azkenik, komunitarioak, biztanleen kohesioan eta ahalduztzean oinarritzen direnak.

62. Jordi García Jané (2015) “Economía Solidaria: Otra economía para otro desarrollo local”, *Retos y futuro del Desarrollo Económico Local*. Bartzelonako Diputazioa.

Bestalde, garrantzitsua da enpresa handien jarduera arautzea eta mugatzea, enpresen interesak babesten dituzten estatu-mailako eta nazioarteko arauak gainditzeko arrakalak bilatuz. Halaber, garrantzitsua da interes korporatiboek herrian sortzen dituzten ondorioen aurrean erantzuteko eta alternatibak bilatzeko estrategiak beste administrazio batuekin batera martxan jartzea, ondorio horiek ingurumenean, osasunean zein enpleguan izan. Adibidez, deslokalizatzeko arriskua duten edo asko kutsatzen duten enpresen aurrean, enplegua eta tokiko ekonomia babesten duten baterako irtenbideak bilatu beharko ditugu.

Ikuspegi horrekin bat datorren udal-politikaren helburua ezin da izan ohiko ekonomia-indizeak hobetzea; aitzitik, helburua pertsonen ongizatea bermatzea izan behar da. Izaera integrala duten proiektuak sustatu behar ditugu, hau da, arlo ekonomikoa eta soziala bateratzen dutenak. Hala, proiektu horiek honetaz jabetu behar dira: hazkunde sozialak oinarri ekonomikoak behar ditu eta horretarako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren proposamenak dira egokienak.

10. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) ekoizpen-ehuna

ESSa tokiko giza-garapen iraunkor eta ekita-tibo batekin lotuta dago; izan ere, lurraldean errotzen da eta komunitatea da bere proposamenaren objektua eta subjektua; baliabide endogenoak erabiltzen ditu eta autozentratua da, tokiko beharrak tokiko baliabideekin asetzea lehenesten baitu; lurraldeen gaitasunak eta garapena ikuspegi integral batetik sustatzen du.⁶³ Gaur egun, ESSa ekonomia-ziklo osoan dago: sorkuntzan, ekoizpenean, mer-

katuratzean, kontsumoan eta finantzetan eta soberakinen banaketan.

ESSaren praktikak gizartearen autoantolaketaren emaitza dira; hortaz, herritarrek dute protagonismoa eta eurek sortzen eta mantentzen dituzte praktika horiek. Hala ere, **tokiko administrazioek paper aktiboa izan dezakete** ekimen horiek bultzatzeko. Haiek, gutxienez, 6 rol hauek izan ditzakete:⁶⁴

- Baldintzak sortu, hau da, ekonomia autozentratuagoa eta dibertsifikatuagoa sutatu eta kapital soziala bultzatu, komunitate kohesionatua, solidarioa eta parte-hartzailea sortzen lagunduz.
- Honako arlo hauetarako baliabideak eman: Prestakuntza, informazioa, aholkularitza, aukerak hautematea, izapideak, lurrak eta tokiko baliabideak, teknikariak, harremanak eta abar.
- Sentsibilizatu. Izan ere, kontsumo kritikoaren inguruan sentsibilizatuta dauden herritarrek ESSa indartzen duen eskaera sortzen dute. Hala, teknikari eta politikari trebatuak eta sentsibilizatuak hura sustatzeko aukerak detektatzeko gai dira.
- Erosketa Publiko Arduratsuaren bitartez hornitu.⁶⁵
- ESSaren ekimenetan parte hartu, esate baterako, proiektu jakinetan kolaboratzaile edo bazkide bezala lagunduz, batez ere, hasierako sorrera- eta finkatze-faseetan.
- Ekimen sozioekonomikoak finantzatu eta jardueren garapena sustatu, hainbat zergatan hobariak emanez: Ondasun Hi-

63. Zaloa Pérez eta Carlos Askunze (2016) *Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatu. Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak* REAS Euskadi.

64. Bartzelonako Diputazioa (2014) *Guía de economía social y solidaria para la administración local*.

65. Azalpen sakonago baterako ikus "Aurrekontua eta Zorra" atala.

giezinen gaineko Zerga (OHZ), Ekonomia Jardueren gaineko Zerga (EJZ), eraikuntzaren eta instalazioen gaineko zergak, tasa eta zerga bereziak, etab.

Geltoki ESSa sustatzeko gune bat da, Iruñeko erreferentziako gune batean dagoena, hain zuzen, autobus geltoki ohian. Udalak gune hura birgaitu eta jarduera horretarako laga zuen.⁶⁶

Ekintza multzo hori sistematizatzeko, honako fase hauek dituen prozesu bat imajina dezakegu: (1) gure lurraldean dauden ESSko esperientziak ezagutu; (2) behin aukerak eta beharrrak identifikatuta, planifikatu, besteak beste, inportazioen ordeztu lurraldeko ondasun eta zerbitzuak erabiltzeko aukera duten eremuak; (3) arautu, araudiak eta ordenantzak ezarri; (4) tokiko administrazioen eta ESSko eragileen artean proiektuak bat garatu, elkarrekin konfiantza sortzeko.⁶⁷

Hain zuzen ere, **gizarte-ekintzailtzaren sustapena**, lan egiteko, mutualismorako eta ekonomia ikusteko eta egiteko modu berriak antolatze modu gisa, ESSaren ehuna handitzeko gaitasun handia duen eremua da. *Start-up* bezalako elementuak ezaugarri dituen ekintzailtza-eredu hegemonikoaren aurrean, ESSa ekimen kolektiboak sustatzearen alde dago, horiek gizartea eraldatzeko tresna bezala ulertuta. Gainera, enpresa pribatu bat kooperatiba bihurtzean ere gizarte-ekintzailtza ikus dezakegu, langileek protagonismoa hartzen dutenean.⁶⁸

Juntas emprendemos egoera ahulean dauden emakumeen ekintzailtza-gaitasunak sustatzeko prestakuntza- eta laguntza-programa da, Aragoi, Katalunian, Madrilen eta Euskadin garatua.⁶⁹

Gizarte-ekintzailtza ekimenak sustatzeko, beharrezkoak dira ekimen horiek sustatzen dituzten pertsonen beharretara egokitzen diren **laguntza-egitura** espezifikoak. Horiek beren prestakuntza eta laguntza-programak egokitu behako dituzte eta honako hauek dira programa horiek diseinatzeko gako batzuk: *coworking* eremu bat, non pertsonak elkarri laguntzeko eta lan egiteko sareak sortzeko aukera duten; laguntza teknikoa eta giza laguntza; tokiko edo eskualdeko ingurunearekin lotura; ikuspegi kritiko batetik kontzeptuei esanahi berri bat ematen dien kanpo-komunikazioa; eta finantzamendu etikoa eta alternatiboa.⁷⁰

KoopFabrika ekonomia sozialean gizarte-ekintzailtza kooperatiboa sustatzeko sortutako programa da. Hura, gizarte-ekintzailtza kooperatiboa lurraldearen garapen sozioekonomikoan txertatzeko estrategia bat da.⁷¹

Azkenik, **lankidetzako ekosistema bat sustatzeko helburua duten proiektuak** garatzeko aukera dago, horietan inplikaturako eragileek modu ireki eta antolatuan bat egin dezaten. Gune fisiko (eta mental) bat, zeinetatik ESSari lotutako proiektuen sorkuntza eta garapena

66. Geltokiren web-orria: www.geltoki.red

67. Jordi García Jané (2014) *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Bartzelonako Diputazioa.

68. Marc Font (26/02/2020) "El relevo cooperativo de una empresa, una quimera plenamente factible" *VientoSur*.

69. Programaren web-orria: www.juntasemprendemos.net

70. GEZKI (2016) *Incubadoras de Economía Social y Solidaria: experiencias internacionales y definición participativa de una incubadora social universitaria*.

71. KoopFabrikaren web-orria: www.koopfabrika.eus

modu integral batean laguntzeko ibilbideak, tresnak eta baliabideak eskainiko diren. Horren adibide bi dira [MARES](#), Madrilgo Udalak eta ESSko eragileek sustatutako proiektu pilotua, eta Bartzelonako [Coòpolis](#), herritarrek, ESSko proiektuek eta ekimenek eta administrazio publikoak elkarrekin abiarazitako proiektua.⁷²

11. Enpresen interesen aurrean blindatzea

Herriek enpresa transnazionalen jarduera arautzeko gaitasun mugatua dute. Hala ere, herria (administrazioa zein herritarrek) inpaktu handiko enpresa-jardueren aurka jartzea funtsezkoa izan daiteke horiek mugatzeko edo ekiditeko. Jarraian, gure herri eta hirietan ondorio larriak dituzten enpresa jarduera batzuk aipatzen ditugu eta horiei aurre egiteko eta horiek arautzeko zenbait neurri proposatzen ditugu.

Lehenik, turistifikazioaren eta horren ondorioen aurrean (etxebizitza garestitzea, lan prekarioak, eremu publikoa okupatzea, kulturaren folklorizazioa eta merkantilizazioa), **turismo jasangarriko** eredu baten alde egin behar dugu eta, asetasun mailara heldu diren leku horietan, **turismoaren desazkundea** sustatu. Gainera, kontuan hartu behar dugu “turismo jasangarri” etiketak ezin duela turismoaren hazkundea legitimatzen jarraitu.

BiziLagunEkin plataformak (Donostia) edo [Turismoaren desazkundearen aldeko Auzoen Asanbladak](#) (Bartzelona) honako neurri hauek proposatzen dituzte, besteak beste:⁷³

- Parte-hartzea eta turismo ereduari eta horren ondorioei buruzko eztabaida publikoa.
- Monolaborantza turistikoarekin hautsi eta gune aseak leheneratu.
- Turismoa erakartzera bideratutako aurrekontuak kendu.
- Tasa turistikoak sortutako diru-sarrerak ongizate-politikan inbertitu.
- Etxebizitza turistikoak mugatu, hotel lizentzia berririk ez eman eta gurutzatzen etorrera mugatu.
- Denden egutegia eta ordutegia malgutzeari utzi.
- Eremu publikoen merkantilizazioa saihestu eta komunitate-bizitza lehenetsi.
- Kultura-jardueren erabilera komertziala saihestu eta hizkuntza ofizialak errespetatu.
- Balio ekologikoko guneak zabaltzea eta babestu eta turismoak osasunean dituen ondorioak konpondu.

Megaekitaldiak, publikoak (Donostiaren hiriburutza kulturala) zein pribatuak (MTV), inpaktu handiko beste jarduera bat dira. Horiek bisitariak eta inbertsioak erakartzen dituztela argudiatzen dute baina gizarte-erakundeek horien ondorioak salatzen dituzte. Hala, administrazioek horiek diruz laguntzeari utzi behar diote eta eremu publikoaren erabilera arautu eta azpiegitura publikoak

72. Proiektuen web-orriak: www.maresmadrid.es y <https://bcn.coop>

73. Kolektiboen web-orriak: <https://assembleabarris.wordpress.com>



ondorio negatiboak dituzten ekitaldietarako erabiltzea mugatu behar dute. Horrez gain, enpresak indarrean dauden lan-hitzarmenak betetzera derrigortu behar dituzte.

Piztu Bilbao, itzali MTV kanpainak MTV sarien ospakizunaren ondorioak bistaratu zituen, auzoetatik eta bertan bizi den jendeak eraikitako hiri baten alde eginez.

Horrekin batera, **merkataritza-kontzentrazioa gelditu** beharra dago. Hala, Eusko Jaurlaritzak *Merkataritza jardueraren legea* aldatu berri du merkataritza-azalera mugatzeko; baina hori ez da nahikoa tokiko eta gertuko dendak babesteko. Hori dela eta, herrietatik jardue-
ra horiek ekiditeko edo mugatzeko modua bilatzea ezinbestekoa da. Europako arauak mugak ezartzen dituzten arren, murrizketa

horiek “interes orokorraren” arabera justifi-
ka ditzakegu, esate baterako, garraiobide eta azpiegituren plangintza egokiagatik edo gizarte- eta ingurumen-kausengatik.

Halaber, herriek eremu publikoan edo udal-instalazioetan jarritako publizitatea arautzeko aukera dute, adibidez, kirol-estadioetan. Horrela, produktu kaltegarrien publizitatea eragotz dezakete, hala nola zorizko jokoena edo elikagai ultraprozesatuena, baita emakumeen gorputza publizitate-erakargarri gisa erabiltzen duena ere. Gainera, ondorio ekologiko eta sozial larriak izan ditzaketen **megaproiektu korporatibo horien aurrean lurraldea eta herriko ondarea babestea** ezinbestekoa da. Kasu horietan, eskumen-mugak gainditzeko, funtsezkoa da erakundeen eta gizarte-eragileen arteko antolaketa eta lankidetzeta.

2013an, Arabako Kuartango herriak **Frackingaren aurkako herri-galdeketa** egin zuen. Horretan, herritarren % 98,46k hura herrian garatzearen aurka agertu zen.

:: Gehiago jakiteko ::

• REAS Euskadi (2016) *Lurraldeak ekonomia solidarioaren bitartez eraldatuz*

• Jordi Garcia Jané (2014) *Guía de Economía Social y Solidaria para la administración local*. Bartzelonako diputazioa.

Ernest Cañada eta Iván Murray (2019)
Turistificación Global. Icaria

Erreferentziako web-orriak:

• Ekonomia Solidariorako eta Kooperatibismoako baliabide-zentroa:
www.emprendes.net

• BiziLagunEkin
<http://www.bizilagunekin.eus>

• Euskal Herriak Kapitalari Planto!
www.kapitalariplanto.eus

LURRALDE-PLANGINTZA, URBANISMOA ETA ETXEBIZITZA

Lurralde-plangintza eta hipoteka-, etxebizitza-, lurzoru-, ingurumen- eta azpiegitura-politika gehienak kapitalen balioa handitzearen zerbitzura daude. Horren adibideak ikusten ditugu azpiegitura-plan handietan eta hirigintza- eta etxebizitza-politiketan. Lehenengoez inbertsioak erakartzeko eta nazioarteko merkatuetan lehiatzeko helburua dute eta bigarrenak higiezinaren negozioaren hazkunde mugagabea sustatzen dute. Lurraldearen berrantolaketa horrek segregazio espazialeko prozesuak eragiten ditu, mundu-mailan zein lurralde eta hirietan; baita euren lurretatik edo etxebizitzetatik kanporatutako pertsonen lekualdatzeak, ingurumen-ondorio larriak eta muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean kalteberatasuna ere.⁷⁴

Hirien kasuan, lurralde-lehiakortasun politikek hiriaren balioa handitzen dute, eta horrek lurzoru-errentak ateratzea errazten du, hiritarren bizitza prekarizatuz. Bartzelona hiri-marka edo Bilbon Guggenheim museoaren inguruan izandako hiri-berritzea horren adibide dira. Izan ere, zenbait hamarkadaz higiezinaren merkatua zabaltzen lagundu duten etxebizitza politikek, hura arautu beharrean, krisia eragin dute, honako hauen ondorioz: “alokairuen prezioen arauketa falta, etxebizitza publikoko parke eskasa eta putrefuntsak erakartzeko politikak”.⁷⁵ Ondorioz, etxebizitzek gora egin dute, bai hipotekatutako etxebizitzetan bai alokatuetan. Hain zuzen ere, Espainiako estatuan 318.912 etxebizitzetxe izan dira 2014tik 2018ra bitartean.⁷⁶

74. Observatorio Metropolitano de Madrid (argtz.) (2009) *Paisajes devastados*. Traficantes de Sueños.

75. Rubén Martínez (9/07/2019) “La gentrificación y el enemigo disponible” *Nativa*.

76. EpData (2020) “Desahucios, estadísticas, datos y gráficos”.

Euskal Autonomia Erkidegoan, industrian eta garraioen eta logistikaren sektorean espezializatzearen aldeko apustu estrategikoaren ondorioz, industria berriak erakartzeko, dibertsifikatzeko eta trafiko-fluxuak errazteko azpiegiturak garatzera bideratu da lurralde-antolaketa. Hala, eredu horrek eragin ditu lurraldeen zatiketa, EBko lurzoru-okupazio handienetako bat eta atmosfera- eta soinu-kutsadura. Gainera, kostaldearen % 12,8 urbanizatuta duen EAEa ipar kostaldeko Autonomia Erkidego urbanizatuena da eta habitat naturalen % 39,4 babesik gabe ditu.⁷⁷

Etxebizitzaren egoera ere larria da, nahiz eta 2015eko legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortu zuen. Kudeaketa publikoko etxebizitzek gizarte politikak ahalbide-

tzen dituzten eta espekulazioa gelditzeko gai diren arren, horien parkea etxebizitza guztien % 2 baino ez da,⁷⁸ hau da, Herbehereetako % 30a edo Austriako % 24a baino askoz baxuagoa. Hori, bada, 2003 aurretik eraikitako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren deskalkifikazioaren ondorioa da, hein batean.

12. Udalerri-plangintza feminista eta ekologista

Punt 6 kolektiboaren arabera, “hiria ikuspegi-feminista batetik pentsatzea ikuspegi produktibista sozial eta politikoki murriztaile batetik eremuak sortzeari uztea da eta eremu horiek erabiliko dituzten pertsonak lehenesten dituzten inguruneetan pentsatzen



77. Greenpeace (2019) *A toda costa*.

78. Kaleratzeen aurkako Plataforma (29/05/2019) “Euskadiko etxebizitza larrialdiaren aurkako berehalako neurriengatiko manifestua”.

hastea”.⁷⁹ Horretarako, honako hauen aldeko apustua egiten da: hurbiltasuna, aniztasuna, autonomia, baztertu ohi diren ahotsen ordezkagarritasuna eta parte-hartzea, auzo biziak bilatzea eta komunitatea sortzea. Hiri-ehunak sor ditzakeen kanporaketa-moduetan jartzen da arreta, hala nola pobretzean, arrazakerian, segurtasun ezan, irisgarritasun ezan edo bizi-zikloan zehar ditugun zaintza-behar desberdinetan. Eta lurraldeko energia-, ingurumen- eta denbora-baliabideen harrapakaritza gelditzea da helburua.

Lehen jarduera-eremu bat **autokontentzioa** izango litzateke,⁸⁰ berezko baliabideak aprobetxatzea eta degradatutako edo arriskuan dauden eremuak leheneratzea. Horretarako, eraikitako lurzorua handitu beharrean, hirigintza konpaktuagoa eta dentsitate handiagokoa sustatu beharra dago eta, aldi berean, kale bihur daitezkeen eremuak birnaturalizatu, baita erabilerak uholde-arriskuaren arabera egokitu edo kostaldeko hesi naturalak berreskuratu ere. Ildo beretik, hirigintza geldo eta bigun baten alde egin beharra dago. Hau da, eraikuntza-enpresa handi gutxi batzuen eskuetan geratzen diren operazio urbanistiko handien ordeztu, hazkunde geldoa proposatzen dugu, sare zaharrak berrerabiltzen dituen eta beharren arabera hazten dena.

Bigarren jarduera eremua, hiriaren eraldaketa prozesuetan **komunitateak parte hartzea** da, baztertu ohi diren ahotsetan arreta berezia jarritz. Garrantzitsua da, beraz, emakumeen esperientzia, ezagutza eta beharrak aintzat hartzea, ikuspegi feminista batekin lan egiteko gai diren teknikariak jarritz; baita haurren ikuspegia ere. Gainera, parte-hartzea eta komunitatearen eraikuntza egunero egiten dira.

Horretarako, eremu publikoak pertsonarteko harremanak sustatzeko guneak eduki behar ditu; hau da, egoteko, esertzeko eta hitz egiteko guneak.⁸¹

Punt 6 hirigintza feministako kolektiboak parte-hartzeko metodologia bat garatu du. Hark “azterketa ibilbideak” erabiltzen ditu herritarren esperientziaz eguneroko bizitzan eragina duten alderdi fisiko, sozial eta funtzionalak identifikatzeko helburuz. Metodologia hori parte-hartze bidezko diagnostiko bezala erabil daiteke, baita herritarren aldarrikapen tresna bezala ere.⁸²

Hirugarren jarduera-eremua **mugikortasun jasangarria** sustatzeari dagokio, oinez, bizikletaz eta garraio publikoan mugitzea bultzatzeko. Horretarako, bada, hirigintza-planek bizitegi-eremuetako dentsitatea handitzea sustatu beharko dute, baita hiri-ehun finantzuaren ekoizpen-jarduerako eremuak sortzea erraztu. Kotxeen nagusitasuna murriztearekin batera -horiek eremu publikoaren % 60 erabiltzen baitute⁸³-, garraio publikoen eskaintza hobetzen da eta kotxeen zirkulazioa mugatzen, adibidez, Emisio Txikiko Eremuak sortuz. Eraldaketa horiek planifikatzeko kontuan hartu behar dugu eguneroko ibilbideak ez direla lanera joan eta lanetik itzultzera mugatzen; konplexuagoak dira eta, hortaz, herritarrei entzun beharko diegu.

79. Blanca Valdivia (2018ko azaroa) “Del urbanismo androcéntrico a la ciudad cuidadora”, *Hábitat y Sociedad*, 11. zkia.

80. Zaida Muxi (koord.) (2013) *Postsuburbia*, Comanegra.

81. Zaida Muxi eta Adriana Ciocchetto (2011) “La Ley de barrios en Cataluña: la perspectiva de género como herramienta de planificación”, *Feminismos*, 17. zkia.

82. Kolektiboaren web-orria: www.punt6.org

83. Ecologistas en Acción (16/09/2019) “Ciudades para la gente no para los coches”.

2008an, Gasteizko Udalak **Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana** onartu zuen. Horrek garraio publikoaren eskaintza, intermodalitatea eta maiztasunak handitu zituen eta bizikletaren erabilera sustatu zuen. Izan ere, bizikletaren erabilera % 3tik % 12ra igo zen eta automobilen erabilera % 13 jaitsi zen.⁸⁴

Laugarren jarduera eremua **bizitasuna eta zaintza-sareak sustatzea** da, segurtasunaren pertzepzioa minimizatzeko. Segurtasunaren ikuspegi feminista batek zaintza informala lehenesten du, berdinen artekoa eta solidarioa, zaintza polizialaren orde. Hortaz, lekualdatzeak erabilgarriak eta seguruak izan daitezten, eguneroko ibilbideetan hainbat jarduera txerta daitezke. Era berean, garrantzitsua da honako hauek sustatzea: komunitate-bizitza, kultura arteko eta belaunaldi arteko harremana, topaguneez jabetzea eta etxeko eremuaren eta eremu publiko eta komunitarioaren arteko iragazkortasuna. Horretarako, esate baterako, lan erreproduktiboen ardurakidetzarako eremu komunak erabil ditzakegu, hauek etxeko isolamendua hausten baitute.

Txirikorda HiritikAt kooperatibak Usurbilen diseinatutako etxebizitza publikoko proiektu bat da. Hark belaunaldien arteko bizikidetzat sustatzen du, zaintza-eredu berri bat sortzeko eta gazteen etxebizitza-beharrei erantzuteko helburuz.⁸⁵

13. Espekulazioa gelditzea eta etxebizitza-eskubidea⁸⁶

Higiezinaren espekulazioa gelditzeko, etxebizitza-parke pribatua diru publikoaren bitartez handitzen jarraitu nahi duten **hirigintza-operazio espekulatibo** guztiekin amaitzea da lehenengo urratsa.

Durangoko **Erabaki** plataformak 3.000 sinadura baino gehiago batu zituen hiriararen erdialdean eraiki nahi zituzten 18 solairuko bost dorreen inguruan herri-galdeketa bat eskatzeko. Horren bitartez, trenbidearen lurperatze-lanak finantzatzeko lursail publikoak birkalifikatu zituen espekulazio operazioa gelditu nahi dute.⁸⁷

Gainera, beharrezkoa da hutsik dauden **etxebizitzak mobilizatzeko neurriak** bultzatzea. Zentzu horretan, bada, EAEko 2015eko etxebizitzaren legearen arabera, udalek kanon bat, derrigorrezko alokairua edo aldi baterako desjabetzea aplikatu dezakete bi urte baino gehiago hutsik daramaten etxebizitzaren kasuan. Era berean, Eusko Jaurlaritzak ematen dituen horien osagarriak diren zerga-pizgarriak, birgaitzeko diru-laguntzak edo jabetza-bermeak aplikatzeko aukera dago. Gainera, ohiko etxebizitza iraunkorren erabilera babestu beharra dago, etxebizitza turistikoak arautuz eta, adibidez, zerbitzu-presio handia duten zonaldeetan dendak lehen solairuetara hedatzea ekidinez.⁸⁸

84. Vitoria-Gasteizko Udala (2019) *Bidea: Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planeko 10 urte*.

85. HiritikAt: <https://hiritik-at.eus/project/txirikorda-belaunaldiarteko-etxebizitza-komunitarioa>

86. Alex Francesi (Kataluniako Maizterren Sindikatua), Paula Martíri (Cel Obert), Daniel Prado (ABDT) eta Carlos Rey (REAS Nafarroa) eskertu nahi dizkiegu atal honetan egindako ekarpenak.

87. Plataformaren web-orria: <https://erabakidurango.wordpress.com>

88. Informazio gehiago hemen: <https://celobert.coop/habitatge-i-urbanisme>

2016an, Bartzelonako Udalak **“turismo-ostatuaren arauketarako txoke-plana”** abiarazi zuen eta ikuskatzaile gehiago eta kalean bertan frogak biltzeko helburua zuten 40 ikuskari kontratatu zituen.⁸⁹

Beste alde batetik, **etxebizitza-krisiari aurre egiteko**, larrialdia arintzeko neurriak eta epe ertain eta luzeko ikuspegi bat uztartzea proposatzen dugu, baita etxebizitza-politikak zeharkakotzea ere, honako sail hauek horietan parte hartzea sustatuz: hirigintza, gizarte-zerbitzuak, gazteria, udaltzaingoa, elkarbizitzarako zerbitzuak, etab. Hala, hainbat neurri har daitezke.

Lehenik, **etxegabetzeak gelditzeko**, etxegabetze-eskaerak udalei ofizioz jakinaraz diezazkieten eskatu behar zaie epaitegiei, udalek kalteberatasun-txosten bat egin eta bizitoki aukera bat eman dezaten. Bigarrenik, udalak **eraikinak birgaitzeko** laguntza finantzarioa eta teknikoa eman dezake, edo beren betebeharrak betetzen ez dituzten jabeak zigortu. Aldi berean, **higiezinaren jazarpenaren** eta etxegabetzeak judizioz kanpo gauzatzen dituzten es-tortsio-mafien aurka egin beharra dago.

Kataluniako maizterren sindikatuak erantzun asanblearioa ematen du alokairuen gehiegizko igoeren eta kontratuak ez berritzearen aurrean.⁹⁰

Hirugarrenik, **alokairu babestuko etxebizitzaren parkea handitu** behar da. Horretarako, udalek lehentasunez erosteko eskubidea balia dezakete. Horrek, erosketa-eraketa bat berdinduz salgai dagoen etxebizitza

lehentasunez erosteko aukera ematen du. Era berean, udalek etxebizitza pribatua erabil dezakete jabetza-bermeak ematen dituzten programen bitartez.

Bartzelonako Leiva kaleko 37. zenbakia **“borrokan zegoen bloke”** bihurtu zen eta Udalak etxebizitza lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzea lortu zuten, putre-funts batek etxetik bota ez zitza.

Alokairuaren osagarri gisa, azken urteotan, **erabilera lagatzeko** ereduak bultzatzen ari da berriro. Hori oso hedatuta dago beste herrialde batzuetan, hala nola Uruguain eta Danimarkan, etxebizitza-kooperatiben bitartez. Etxebizitza-kooperatiba tradizionalak ez bezala, eredu honetan eraikinak ez du banaketa horizontalik; hau da, jabetza ez da banatzen eta finantzazioa kolektiboki egiten da eta ez banakako hipoteken bidez. Hala, ordaintzen ez den kasuetan egoera konpontzeko mekanismo kolektiboak sortzea errazten du horrek. Gainera, lurzoru pribatuan eta lurzoru publikoa laga bitartez eraikitzeak aukera dago.

Bartzelonako **La Borda** etxebizitza-kooperatibak, **Coop57** kooperatibaren bitartez, partaidetza-tituluak jaulki zituen, abal mankomunatuekin, behar zuten finantzamendua lortzeko.⁹¹

Halaber, etxebizitza-kooperatiba gehienak elkarbizitza kolektiboko ereduak izaten dituzte. Horretarako, elkarbizitza-eremuak eta -arauak elkarrekin erabakitzen dituzte eta topaguneak, harremanak izateko eta etxeko eta

89. Betevé (11/07/2018) “L’Ajuntament tanca 2.355 pisos turístics il·legals en dos anys”.

90. Àlex Francès sindikatuko bozeramaileari elkarrizketa.

91. La Bordaren web-orria: www.laborda.coop eta Coop57: <http://coop57.coop>

zaintzako lanak partekatzeko guneak sortzen dituzte. Era berean, garrantzia handia ematen diote jasangarritasunari eta efizientzia energetikoari, inpaktu-ekologikoak minimizatzeko moduak bilatuz, Madrileko [Entrepatis](#) ekimenean egin duten bezala.⁹²

Iruñeko [Etxekide](#) hainbat pertsona nagusik bultzatutako etxebizitza-kooperatiba bat da, lagapen-erregimenean dagoena.⁹³

Etxebizitza-kooperatibek irisgarritasunaren erronka dute aurrean; izan ere, euren kostuak erosketarenak baino baxuagoak diren arren, sartzeko hesi altuak dituzte oraindik. Horregatik, orube publikoak lagatzea oso garrantzitsua da baina beste bide batzuk ere bilatu behar dira, hala nola birgaitzea behar duten eraikinak lagatzea (Bartzelonako Princesa49 kooperatibaren kasua); kreditu publikoa erraztea; eta lurzoru pribatuan dauden kooperatiben kasuan, OHZ eta eraikuntza-zergak murriztea. Halaber, laguntza-mekanismoak beharrezkoak dira, [PerViure](#) ekimenak ematen duena bezala.⁹⁴

:: Gehiago jakiteko ::

- Col·lectiu Punt 6 (2011) [*Mujeres públicas, urbanismo y género.*](#)
- Nuria Blázquez (2019) [*Zonas de Bajas Emisiones*](#), Ecologistas en Acción.
- Hiria kolektiboa (2010) [*Hiri analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza.*](#) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Erreferentziako web-orriak:

- Hirigintza Feminista: www.punt6.org
- Etxegabetzeen aurkako plataforma <http://kaleratzeakstopdesahuciosaraba.blogspot.com>
- Maizterren sindikatua: www.inquilinato.org eta <https://sindicatdellogateres.org>
- Etxebizitza-kooperatibak: www.ametsaksortzen.eus

92. Entrepatisen web-orria: www.entrepatis.org

93. Kooperatibaren web-orria: www.etxekide.org

94. Web-orria: <https://perviure.org>

DENBORAK ETA ZAINTZAREN ANTOLAKETA SOZIALA

Zaintzaren antolaketa soziala bidegabekoa da leku guztietan. Ez dago izaki interdependente bezala behar ditugun zaintzak emateko ardura kolektiborik eta hura bakoitzak konpondu behar duen kontu pribatutzat hartzen da. Historikoki, arazo hori bizitzaren zaintza emakumeen eskuetan utziz konpondu da eta horrek “zaintzaren, desberdintasunaren eta prekaritatearen, bazterketaren edo pobreziaren arteko lotura sistemikoa” sortu du.⁹⁵ Euskal Autonomia Erkidegoan, azken datuen arabera (2013), ordaindu gabeko etxeko eta zaintzako lanen diru-balioa BPGaren % 32 da⁹⁶ eta lan horren % 67 emakumeek egiten dute.⁹⁷

Etxeko eta zaintzako lan hori ekonomia formalan egiten denean ere, ikusezina da, oso sektore feminizatua da, oso prekariora eta arauke-

ta eskasekoa. Izan ere, soldata baxuenak dituen adar ekonomikoa da (hain zuzen, batez besteko soldataren % 44 Estatistika Institutu Nazionalaren arabera). Gainera, Hegoaldeko gero eta emakume gehiago mugitzen dira munduko beste leku batzuetara zaintza-behar horiek asetzera. Guztira, zaintza-beharrak asetzera bideratutako lan-indarra munduko enpleguaren % 11,5 da gutxi gorabehera⁹⁸ eta EAEan etxeko eta zaintzako lanen sektorean 90.000 langile daudela kalkulatu da; hau da, etxebizitzaren ehuneko %14,2k etxeko eta zaintzako lanak kontratatzen dituzte.

Finantza-krisia zerbitzu publikoak nabarmen murrizteko aitzakia gisa erabili dute. Horrek, alde batetik, emakumeek ordaindu gabeko etxeko eta zaintzako lanetan ematen duten

95. Amaia Pérez (2014) *Subversión feminista de la economía*, Traficantes de Sueños.

96. Murtxe Larrañaga (2018) “Etxeko lanak eta zaintza-lanak BPGd-n sartzea: kontu satelitea” *MgE Dossierrak*, 29. zkia.

97. Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) egiten duen *Denbora-aurrekontuen inkesta*.

98. Lanaren Nazioarteko Erakundea -OIT- (2018) *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado. Para un futuro con trabajo decente*.

ordu-kopurua handitzen du; eta bestetik, negozio aukera bat sortzen du irabazi-asmoa lehenesten duten enpresa handiek funtsezko giza-behar hori kudea dezaten, esplotazioko eta etekinak maximizatzeko logika baten arabera.

Lerro hauekin, *etxeko eta zaintzako lanaren* birlokalizazioa proposatu nahi dugu, hau da, gizarte bakoitzak bizitza sostengatzeko antolatu beharra, hura erdigunean jarritz, ekitate eta justizia irizpideekin eta sistemaren berregituratze baten markoan. Hala, kultura-eraldaketa sakon bat proposatzen dugu. Horretan, erakunde publikoek, enpresek, komunitateak eta familiek parte hartu behar dute; gaur egungo arazoei eta beharrei erantzuten dieten ekintzak martxan jartzeko baina epe luzeko estrategiak martxan jarri behar ditugula ahaztu gabe. Izan ere, estrategia horiek gizarte-eraldaketa sakonak sustatu behar dituzte bizitza eta bere zaintza ekonomia- eta gizarte-ereduaren erdigunean kokatzeko.

14. Gizarte-denbora berrantolatzea

Gizarte batek bere azterketaren eta erabakien erdigunean biztanleen bizi-baldintzak jartzen dituenean, zaintza zentralizat hartzen du. Horrek, denborei dagokienez, nagusi den ereduarekin haustea dakar. Zentzu horretan, beraz, gizarte-denboren antolaketa bizitzaren iraunkortasunaren arabera antolatzea proposatzen dugu, merkatuaren marjinetan kokatzen diren denborak erdigunean jarritz, batez ere bizitza zaintzeko ematen diren denborak.

Premiazkoa da, hortaz, eragile guztien artean (enpresak, herritarrak, komunitatea, erakundeak) **denboren politika berri bat** diseinatzea, zenbait kontsideraziotan oinarrituta.⁹⁹

Lehenik, bizitza denbora eta okupazio anitzeko sistema batean oinarritzen dela ulertu behar dugu. Denbora eta okupazio horiek elkarren artean konbinatzen dira edo bizi-zikloan zehar txandaka agertzen dira: soldatapeko lana, autoenplegua, beste pertsona batzuen zaintza eta autozaintza, autohornikuntzako eta aisialdi produktiboko moduak edo lan komunitarioa.¹⁰⁰

Beste alde batetik, lehenetasunak ezarri behar ditugu. Hala, helburua herritarren ongizatea bada, funtsezkoa da etxeko eta zaintzako lanetan emandako denbora, oinarritzko beharrak asetzera bideratzen dena. Azkenik, emakumeen eta gizonen artean denboraren erabilera dauden desberdintasunak azpimarratu nahi ditugu, eta kontuan hartu ordutegi eta lanaldi luzeenak eta bateratzeko zailenak, oro har, sozialki ahulenak diren biztanleria-taldeetan agertzen direla. Gogoratu behar dugu, gainera, denbora libre gehiago izateak ez duela bermatzen gizonek bizitza mantentzeko ardura beren gain hartuko dutenik.

Udal-administrazioek **denboraren erabilera berriei buruzko hainbat ekimen edo programa** jarri dituzte abian eta, oro har, jarduera-arantzatz hauetan oinarritu dira: hiriko denboraren gizarte-antolaketa ezagutzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea eskutik hartzeak zehaztea; hiri-antolaketa herritarren denboraren erabilera desberdinetara egokitzea ahalbidetuko duten ekimenak eta proiektu pilotuak garatzea, hurbileko eragile guztiak (azkoa, eskola, lana) barne hartuko dituztenak.

99. Cristina Carrasco eta Albert Recio (2014) "Del tiempo medido a los tiempos vividos" *Revista de Economía Crítica* 17. zkia.

100. Lucía del Moral (2012) "Sobre la necesaria reorganización de los tiempos. Políticas de tiempo, espacios económicos alternativos y bienestar", *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 119. zkia.

NUST sarea Bartzelonako Udalak sortutako ekimena da. Sareak denbora hobeto kudeatzea eta lana eta familia bateragarri egitea errazteko konpromisoa duten enpresak eta erakundeak biltzen ditu.¹⁰¹

Zaintza-hiriaren kontzeptua erabiltzen, Bartzelonak, Madrilek, Valentziak, Zaragozak eta beste hainbat hirik zaintza-lanak banatzeko eta aintzat hartzeko eta hiri atseginagoak, inklusi-boagoak eta iraunkorrakoak sortzeko ekimenak abian jarri dituzte.

Esku-hartze horiek bideratu dira baliabide eta ekipamendu soziokomunitarioen (liburutegiak, kiroldegia, herritarrei arreta emateko zerbitzu publikoak) ordutegiekin lotutako gaitara; lana eta familia bateragarri egiteko helburua duten eskolako jolastoki irekien programetara; edo azpiegiturak sortzera, hala nola bizikleta-erreiak eta eskolarako bideak, adibide batzuk jartzearen.

Denbbora Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako sarea da, denboraren erabileran berrikuntza prozesuak sustatzeko helburua duena.¹⁰²

Halaber, bateratzeari, ardurakidetzari eta genero-ekitateari dagokionez, **gizarte- eta lan-harremanen kultura berri bat** diseinatzeko eta sustatzeko helburua duten lan-kidetza publiko-pribatuko esperientziak daude. Berez, ez dira zaintzak demokratizatze prozesuak baina, hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekin batera, egungo gizarte- eta familia-eredua apurtzen lagun dezakete eta enpleguaren eta familiaren zaintzaren dikotomiaren ondorioz emakumeen bizitzan sortzen diren etengabeko gatazkak saihesten lagun dezakete.

Azkenik, eremu sozioekonomiko alternatiboak sortzen dituzten tokiko ekimenak ditugu, maila mikrosozial batean eguneroko denborak hobetzeko bereziki garrantzitsuak direnak eta aniztasun ekonomikoa bistaratzen dutenak, nagusi diren logika merkantilista eta indibidualistak erabat hautsiz. **Denbora-bankuak** horren adibide dira. Haiek balio bera ematen diete lan guztiei eta alde anitzeko trukeak eta zeharkako elkarrekikotasuna sustatzen dituzte.

Beste alde batetik, horrelako politikek **zeharkako dimentsio bat hartzea eta parte hartzeko eremuak egotea** eskatzen dute, ahalik eta eragile gehien inplikatzeko: udaleko ardura-dunak, herritarrak eta erakunde, enpresa eta lan-erakundeak eta hiri-sareak. Helburu horrekin, hainbat hirik bizitzaren iraunkortasuna beren politika publikoen erdialdean kokatzeko planak diseinatzeko eta abian jartzeko lan egin dute. Horretarako, sentsibilizazio-ekin abiarazten dituzte, hezkuntza-arloan genero-berdintasun eta autozaintza lantzeko elementuak txertatuz; baita parte-hartzeko prozesuak ere, eremu publikoa, hiriko azpiegiturak, mugikortasuna edo hezkuntza- eta osasun-zerbitzuen, denden eta abarren ordutegiak zehazteko.

15. Zaintzaren sektorea duin bihurtzea eta lan-eskubideak bermatzea

Ekonomia kapitalistak errentagarri egiten ditu zaintzak, langileen erantzukizun-sentimendua esplotatuz eta merkatua segmentatuz, hau da, zerbitzua jasotzen dutenek or-

101. Sarearen web-orria: www.bcn.cat/barcelonainclusiva/es/xarxa11.html

102. Sarearen web-orria www.denbbora.eus

daindu dezaketenaren arabera kalitate erabat desberdineko zerbitzuak emanaz. Ongizate-estatua murriztu den testuinguru honetan, langile-kopuru handiak kudeatzeko, kostuak murrizteko, bezero-kopuru handietara heltzeko eta udalek azpikontrataturako zaintza-zerbitzuen lizitazioak irabazteko eskalako ekonomiak baliatzen dituzten zerbitzu anitzeko enpresak sendotu dira.

Hala ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioan errealtate horri aurre egiten dioten alternatibak sortzen ari dira.¹⁰³ Horietako lehena lan-kooperatibak dira, langileen lan-baldintzak hobetzen eta zaintza-lanak aintzat hartzen dituztenak.

Servicios Sociales Integrados EAEan 30 urte baino gehiagoko esperientzia duen kooperatiba da. Hark 400 langile baino gehiago ditu eta gizarte-ekimeneko eta onura publikoko enpresak biltzen ditu gizarte-ahultasun eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen premiei erantzuteko.¹⁰⁴

Gainera, zerbitzu horien erabiltzaileak gobernantzan formalki sartu nahi baditugu **kontsumo kooperatibak** sortzeko aukera dago. Madrilen, MARES ekintzailetza kolektiboko proiektuaren emaitzetako bat **A3Calles** kontsumo-kooperatiba izan da. Hura Vallecasko hainbat familiak kudeatzen dute. Familia horiek, izan ere, arreta, zaintzak eta zerbitzuak etxean behar dituzte eta, zentzu horretan, kooperatibaren helburua kalitatezko, hurbileko eta konfiantzazko zerbitzu bat eskaintzea da, zaintzaileentzat bidezko prezioa eta lan-baldintza duinak bermatuz. Alderdi komunitario hori duen beste esperientzia

bat Kataluniako **“Anem per Feina”** GKEa da. Hark, ikuspegi inklusibo eta bidezko batetik, lan-bitartekaritza zerbitzu bat eskaintzen die enpresa eta familiei.¹⁰⁵

Bigarrenik, Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeek **udal-zerbitzuen zeharkako kudeaketa** egitea susta dezakegu. Gure lurraldean Ekonomia Solidarioko zenbait erakundek nagusientzako zentroak, hurrei arreta emateko zerbitzuak eta etxex etxeko laguntza-zerbitzuak kudeatzen dituzte. Erakunde horiek multinazional handiekin lehiatu behar ez izateko, kontratuetan gizarte-klausulak sar ditzakegu. Hainbat gunetatik, ordea, urrats bat gehiago emanaz, ekintza itundua bezalako harreman egonkorreko esparruak sortzea eskatzen dute, gizarte-eskubideen zerbitzua eta babesa bermatzeko.

Halaber, **egitura mistoen bidezko berrudalekotzeak** egin daitezke, udalak eta tokiko erakundeak biltzen dituzten kooperatibak sortuz. Horren adibide da Kataluniako Arbúcies herriko udalak sortutako kooperatiba publikoa. Horren helburua, bada, etxex etxeko laguntza-zerbitzua handitzea eta adinekoentzako eguneko zentro bat zabaltzea da.

Autogestiotik, **langileen antolakuntza-prozesu kolektiboak** aurkitzen ditugu, beren eskubide eta aldarrikapenak babesteko, elkarri laguntzeko taldeak indartzeko eta sare formal eta informalak ehuntzeko helburua dutenak. **“Las Kellys”** solairuko zerbitzarien elkarteak Espainako estatuko hainbat lurraldetan dago eta ikusezintasun indibidualetik borroka kolektiborako ibilbidearen historia da; beren lan-baldintzak eta osasuna hondatzen duten enpresa-logikei aurre egiteko autoantolaketaren esperientzia.¹⁰⁶

103. Cooperatives de Treball (2019) “Cooperar amb cura” *Nexe Cuaderns d'autogestió i economia cooperativa*, 43. zkia.

104. Taldearen web-orria: www.grupossi.es

105. A3Callesen web-orria: <https://maresmadrid.es/proyecto/a3calles-cuidados-en-territorio> eta “Anem per feina”: <http://anemperfeina.org>

106. Kolektiboaren web-orrialdea: <https://laskellys.wordpress.com>



Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartea

(ATH-ELE) 1985ean sortu zen eta esperientzia aitzindaria da langileen defentsan eta sektorea duin bihurtzean. Azpimarratzekoa da ematen duten lan-aholkularitza zerbitzua, etxeko langileei buruzko urteko estatistikak, instituzioak eta enpresa kontratatzaileak salatzeko kanpainak, lan-baldintzei buruzko lege-proposamenak, etab.¹⁰⁷

Beste esperientzia bat da “Etxeko eta Zaintzako Enpleguako Eskubideei buruzko Jeanneth Beltran behatokia”. Hura Territorio Doméstico Etxeko Langileen Erakundeak eta Senda de Cuidados Elkartek sortu zuten¹⁰⁸ helburu honekin: etxeko eta zaintzako lanean ematen diren babesgabetasun-, abusu- eta eskubideen urraketa-egoerak ezagutzera ematea eta lan-baldintza duinen eta lan-eskubideak erabat eta eraginkortasunez parekatzearen alde borrokatzea.

107. Elkartearen web-orrialdea: www.ath-ele.com

108. Behatokiaren webgunea: <https://www.derechosempleodehogar.org/>

Barcelona Cuida Udalak sortutako gunea da. Horren helburua, zaintza publiko, pribatu eta/edo komunitarioen eremuan hiriak dituen baliabideak ezagutzera ematea eta guztion eskura jartzea da.¹⁰⁹

:: Gehiago jakiteko ::

- Teresa Torns (2014) “Las políticas del tiempo y el bienestar cotidiano” XXIX Jornadas de Coordinación de Defensores del Pueblo
- Andaluziako Lan-kooperatiben Federazioa (2019) Manual para la puesta en marcha de cooperativas de servicios públicos
- Bartzelonako Udala (2018) Cuidemos de quién nos cuida. Guía de contratación y recomendaciones para un trabajo justo de provisión de cuidados y ayuda en el hogar

Erreferentziako web-orriak:

- Etxeko eta Zaintzako Enpleguko Eskubi-deen Behatokia:
www.derechosempleodehogar.org
- Ekonomia Solidarioaren web-orria:
www.economiasolidaria.org

109. Informazio gehiago hemen: <https://www.barcelona.cat/ciutatcuidadora/es/espacio-barcelona-cuida/que-es>

KULTURA

Arte- eta kultura-ekoizpena beti izan da funtsezko elementua edozein sistema politikori eusteko; nortasunak sortzeko eta balio hegemonikoak transmititzeko beharrezko funtzioa betetzen baitu. Baina neoliberalismoak eta kontsumo-gizarteak aurrera egin ahala, beste urrats bat eman da eta kultura salerosgai preziatu bihurtu da, errentagarritasun handia duelako. Hala, kulturaren eta aisiaren industriak kultura-sorkuntza ia guztia mugatzen du eta kultura-ondasunak eskaintza eta eskariaren legeen menpe geratzen dira. Santiago Erasoren hitzetan, “kapitalismoak gure bizitzetan inposatzen duen logika produktibista, azeleratu eta kontsumista bera erabiltzen du nagusi den kultura sistemak”;¹¹⁰ hau da, ekoizpenaren, lehiakortasunaren, merkantilizazioaren, espektakularizazioaren, desarautzearen indibidualizazioaren, prekarizazioaren eta abarren etengabeko azelerazioa.

Aldi berean, globalizazio neoliberalak inposatzen duen lurraldeen arteko lehiakortasun-logikaren baitan, kapitalak eta ezagutzak erakartzeko elementu bereizgarria da kultura eta merkantilizazio eta gentrifikazio prozesuak laguntzen ditu hiri eta auzoetan. Hori dela eta, hiri guztiak museo handiak eta kultura-zentroak eraikitzeke lasterketan sartu dira, kultura-ekitaldiak erakartzeko asmoz eta lurraldean finkatutako kultura-ekosistema anitzaz zaintzeko eta sustatzeko politikak ahaztuz. Euskal Herriaren kasuan, honako adibide hauek ditugu: Bilboko Guggenheim museoa, non bisitarien % 80 turistak diren; 2018ko MTV Sarien ospakizuna, banketxeek diruz lagundutako festibalak, Donostiako Zinemaldia edo Woody Allenen azken filmaren grabaketa hiri berean.

Testuinguru horretan lehentasunak eraldatu eta kultura demokratizatzen hasi beharra

110. Santi Eraso (19/07/2019) “La ingobernable un gesto radical”

dago, ez bakarrik horretarako sarbidea, baizik eta hura ulertzeko modu bera ere. Jarduera gisa ulertu behar dugu kultura eta ez kontsumo gisa. Horrek kultura-mailan aberastasuna birbanatzeko edo inbertsioak birplanteatzeko aldaketez harago joatea eskatzen du; izan ere, kultura pentsatzeko modua aldatu behar dugu. Zentzu horretan, *Indigestió*¹¹¹ erakundeak “kultura burujabetza” kontzeptua aldarrikatzen du, kultura praktika kolektibo gisa ulertua izan dadin. Izan ere, hura ez dela eremu neutroa ulertuta, adierazpen-askatasunaren, sormenaren edo kudeaketa-moduen alde borrokatu behar dugu, gure kontakizuna modu kolektiboan eraiki eta erreproduzitu ahal izateko.

Hala, kulturaren ikuskera zabalagoa berreskuratu nahi dugu, azken urteetan hura kultura-industrien esparruetan txertatuta egon baita, eta horren bitartez, ekosistema askoz konplexuagoa defendatu nahi dugu. Ekosistema horrek, merkantziak sortzeaz gain, arte-esperientziak, ezagutzak, ondasun komunak, gizarte-harremanak eta kultura-ekoizpeneko tresnak ere sortzen ditu.

16. Kultura askea eta eskuragarria sustatzea¹¹²

Kultura demokratizatzeko funtsezko urrats bat da pertsona guztiek kultura eskuratu ahal izatea bermatzea. Horretarako, bada, irekitze-prozesuak bultzatu behar dira oztopoak kentzeko eta kultura askea sortzea eta banatzea sustatzeko. Lehenik, **sorkuntza-ren esparruan**, prekarietate materialari eta banaketa-zirkuituak aurkitzeko zailtasunei erantzutea beharrezkoa da, proiektu kulturalen irisgarritasuna eta kalitatea sustatuko duten sorkuntza-, erakusketa- eta prestakuntza-azpiegituren sarea zabalduz.

Bilboko **Pabellón Número 6** fabrika izandako gune bat da, gaur egun arte eszenikoetarako erabiltzen dena eta sortzaileek eurek autogestionatzen dutena.¹¹³

Arte- eta kultura-sorkuntza egon ohi den gune itxietatik ateratzea beharrezkoa da, esate baterako, hezkuntza-eremura irekiz. Kontrarratiba kulturalaren adibide bat “el violador eres tú” performancea da. Hura abesti global bilakatu da, nazioarteko mugimendu feministaren sare zehaztugabeei esker.

Gaztetxeak Euskal Herriko musika eszenaren funtsezko eragileak izan dira. Horietatik tokiko musika talde asko sortu ziren eta zirkuitu alternatiboa osatzen dute. Horren adibide dira **Tolosako Bonborenea** edo **Hondarribiko Psilocybe** gaztetxeak. Azken hau entsegu-lokalak izateko beharragatik sortu zen eta gaur egun kontzertu-areto bat kudeatzen du.

Finantzamendurako sarbidearen demokrati-zazioa ere funtsezkoa da mundu guztiak kultura eskura izatea bermatze aldera. Prozesu hori esparru publikoan gertatu behar da, tokiko kultura-ehunera bideratutako baliabide publiko gehiagoren bitartez. Hala, kolektiboek prozesu hori zehaztean parte hartu behar dute. Halaber, zalantzan jarri behar da babesletzaren normalizazioa kulturaren izan ere, babesletza horiek erraztu egiten dute enpresa pribatuek edozein kultura-ekitalditan presentzia handia izatea, eta, horri esker, haien irudia garbitu dezakete, beren burua kultura-sorkuntzarekin lotuz. Hala, finantza-

111. *Indigestió* (10/10/2016) “Apunts per pensar en la sobirania cultural” *Nativa*.

112. Talaioi atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiogu.

113. Web-orria: <https://pabellon6.org>



tzen dituzten kultura-produktuak zehaztean ere eragin dezakete.

Beste alde batetik, finantzabideei lotuta, eskubide murriztaileen aurrean **lizentzia askeak** sustatu beharra dago. Izan ere, eskubide murriztaileek ekoizle eta banatzaile handiek kontrolatutako merkantzia bihurtzen dute kultura-ekoizpena. *Copyleft* lizentziek (adibidez, Creative Commons) komun digitalak sortzea sustatzen dute. Horiek komunak ondusun ukiezinez birjabetzea ahalbidetzen dute. *Copyleft* edo komun digitalen mugimendua, erabiltzeko, kopiatzeko, aldatzeko eta aldaketa argitaratzeko askatasunean oinarritzen da, muga bakar batekin, hain zuzen, lau askatasun horiek ez oztopatzea edo eragozteak.¹¹⁴

Wikiemakumeok proiektuak Wikipedian emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta argitaratutako emakumeen biografia-kopurua handitzeko helburua du; izan ere, gaur egun, Wikipedia komun digital nagusietako bat da.¹¹⁵

Kultura eta ezagutza eskuratzeko askatasuna ez da lizentzien bitartez bakarrik lortzen; izan ere, garrantzitsua da erakunde publikoek, hala nola **museoek, artxiboek edo liburutegiek euren ondarerako sarbidea ez mugatzea** eta irisgarritasuna sustatzea. Horretarako, teknologia digitalak eta ekoizpen- eta banaketa-tresnak erabil ditzakete, ezagutza eskuratzeko eta trukatzeko errazteko, baita laguntza publikoen bidez, hala nola kultura-bonuen bidez, sarbidea errazteko ere.

114. Xabier Barandiaran (2019) "Tecnopolítica, municipalismo y radicalidad democrática", *Ciudades Democráticas. La revuelta municipalista en el ciclo post-15M*, Icaria.

115. Proiektuaren web-orria: <https://es.wikipedia.org/wiki/Wikiproyecto:Mujeres/Wikimujeres/WikiEmakumeok>

Hirikilabs kultura digitaleko eta teknologiako laborategi bat da, Donostiako Tabakaleran kokatua, eta teknologien erabilera sozial, kritiko, sortzaile, ireki eta kolaboratiboaren inguruan lan egiten du.¹¹⁶

Lizentzia askeak batez ere teknologiaren eremuan garatzen dira, hain zuzen ere, **software librearen** garapenari lotuta. Hala, software libreak teknologia-enpresa handiek ematen dituzten zerbitzuen aurrean, kode irekiko alternatiba asko eskaintzen ditu. Arlo horretan, bada, premiazkoa da erakundeek kode irekiko software librearen aldeko aldaketa teknologikoa bultzatzea, baita informazio publikoa eskuratzeko datu irekiko sistemak garatzea ere.

TEKS ekonomia sozial eta eraldatzaileraren eremuan teknologia askeekin lan egiten duten kooperatiben eta enpresen sarea da. Haren helburua alternatiba komunak eskaintzea eta tokiko beharrei erantzuteko tresnak garatzea da.¹¹⁷

Azkenik, **lurraldean banatutako kultura-guneak** izatearen garrantzia aipatuko dugu. Produktu kulturalen banaketa-kate handien monopolioaren aurrean (Netflix eta Amazon edo argitalpen-banaketa kontrolatzen duten argitaletxe handiak, hala nola Planeta), ertze-tan geratzen diren adierazpen ez-hegemonikoei hitza ematea beharrezkoa da. Zentzu horretan, honako hauek dira kultura-zirkuitu alternatiboa bermatzen dutenak: liburutegiak, eskolak eta liburu-denda, argitaletxe, arte eszenikoko areto edo aldizkari txikiak eta ko-

munikabide autogestionatuak. Eta horregatik, garrantzitsua da horiek babestea, alokairurako laguntzen bitartez, espazioak lagaz edo finantzamendua eskuratzeko aukera emanez.

Donostiako **Kaxilda** edo Iruñeko **Katakarak** guneek parte hartzeko kultura-prozesu irekiak eta autogestionatuak sortu dituzte.¹¹⁸

17. Kultura-guneen kudeaketa publiko-komunitarioa¹¹⁹

Kultura sortzen den guneen parte hartze bidezko kudeaketa komunitarioa hainbat modura egin daiteke, instituzionalizazio-maila desberdineko autogestiotik -Gaztetxeak edo kooperatibak- herritar-erakundeek ekipamendu publikoak kudeatzeraino. Kasu horietan guztietan, gizarte-eragileak proiektu kolektiboak mantentzeko eta subjektu kolektibo ez subsidiarioak sortzeko antolatzen dira, eusteko aukerak eta negoziatzeko gaitasuna sortzen duten elkarri laguntzeko harremanen bitartez.

La Ingobernable, hiriko komunen **zentro soziala**, Madrilgo artearen eta kulturaren urrezko milian kokatutako gune sozial okupatua izan zen. Horretan, 2017 eta 2019 artean, alternatiba kultural feminista, ekologista, mestizoa eta solidarioa sortu zen. Gaur egun, beste eraikin bat okupatu dute.¹²⁰

116. Informazio gehiago hemen: www.tabakalera.eu

117. Sarearen web-orria: <https://skuramobile.com/teks-2>

118. Proiektuen web-orriak: www.kaxilda.net eta <https://katakarak.net>

119. Ruben Martinez (La Hidra Cooperativa) atal honetan egindako ekarpenak eskertu nahi dizkiogu.

120. Web-orria: <https://ingobernable.net>

Titulartasun publikoko ekipamenduak hainbat ereduren bidez kudeatu izan dira, hala nola kudeaketa zuzena (langile publikoekin) edo enpresa pribatuaren bidezko kanpo-kudeaketa; baina, oraintsuago, kudeaketa zibikoko ereduak (kudeaketa erakunde bati lagatzea) eta kudeakidetza (administrazioaren eta gizarte-erakunde baten artean) hedatu dira. Hala ere, inplikaturako kolektiboek kudeaketa komunitario baterantz ibiltzea eskatzen dute, ulertzen baitute ekipamenduak eta zerbitzuak auzoaren edo herriaren ondasun komunak direla eta, hortaz, horien kudeaketan parte hartzea eskubidea eta erantzukizuna dela.

Astra (Gernika) fabrika zahar bat da, urtetan hainbat okupazio eta hainbat kaleratze izan ondoren, udalak erosi, zaharberritu eta herriko kolektiboek eman ziena.¹²¹

Lehen urratsa kudeaketa komunitarioa egiteko **irizpideak eta modalitateak** definitzea da. Indigestió erakundeak honako hauek proposatzen ditu:¹²²

- Komunitateko kideek zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeko aukera izatea eta erabakitzeke egituretan parte hartzea bermatzea.
- Gardentasuna kudeaketa ekonomikoan eta erabakiak hartzean, eta kudeaketa-organoen informazioa eskuratzeko erraztea.
- Autokontrola eta autoebaluazioa kudeaketa demokratikoaren irizpideak betetzen diren berrikusteko, botere-harremanak orekatzeko mekanismoak sortuz.

- Lurralde-loturak ingurunearekin, proiektuek interes kolektibo adostu bati erantzutea.

- Komunitatearen zerbitzura dagoen tresna bihurtzeko gaitasuna.

- Ebaluazio-prozesuetan oinarritutako efizientzia-irizpideak, hala nola balantze soziala.

Balantze komunitarioa kudeaketa komunitarioko prozesuen kontuak emateko tresna bat da, Bartzelonako hainbat sarek elkarrekin garatua, eta, besteak beste, honako hauek aintzat hartzen dituenak: lurraldean sustraitzea; gizartean eragitea eta gizarte-itzulera; demokrazia eta parte-hartzea; eta pertsonak, prozesuak eta ingurunea zaintzea.¹²³

Illo beretik, **Bherria** partaidetza-prozesuak (2017an Eusko Jaurlaritzak Boluntariorikaren Euskal Kontseiluarekin batera sustatua) lankidetzara publiko sozialerako gako hauek ezarri zituen: parte-hartze prozesu jarraituak aktibatzea; interakzioa sustatzea; ez hastea hutsetik, baizik eta gaurko parte-hartzea gizarte-mugimenduen ekarpea dela onartzea; gure burua teknologikoki ahaldundutzea, aurrez aurrekoa eta digitala elkar elika dezatela; zurruntasun formalaren eta laxotasun informaren arteko orekak bilatzea; jakintzak partekatzea eta adimen kolektiboa sustatzea.¹²⁴

Erabilgarria izan daiteke, halaber, lagatako baliabideen eta guneen errolda edukitzea, kudeaketa-irizpideen eta -modalitateen se-

121. Web-orria: <http://astragernika.net>

122. Indigestió (10/10/2016) "Apunts per pensar en la sobirania cultural" *Nativa*.

123. Informazio gehiago hemen: <http://xes.cat>

124. Prozesuaren web-orria: <https://bherria.eus>

gimendua egiteko. Gainera, errolda horrek zein gune dauden erabili gabe jakiteko auke-ra emango luke. Gune horietarako, “bitartean kudeatzeko” proiektuak egitea proposatzen dugu, hau da, aurreikusitako hiri-berrikuntzak iritsi arte, erabilera bat emateko.

Uliako Lore Baratzak Donostiako udal-mintegi zaharretan kokatutako auzo-proiektua da. Bertan, abandonatutako gune bat berreskuratu dute, aisialdi kontziente eta konstruktiboko gune bihurtzeko.¹²⁵

Azkenik, kultura-politiken koprodukzioa eta eremu instituzionalen iragazkortasuna bultza daiteke. Horrela, udal administrazioak gizarte-autoantolaketari subiranotasuna lagatzeko prozesuak sor ditzake, ekipamenduan ez ezik, beste eremu batzuetan ere, hala nola, eremu publikoan edo jaietan.

Gau Irekia Bilboko auzo altuetako festibal bat da. Bere helburua, jarduera soziokulturala bistaratzea da, herri-tarrek kultura-sorkuntzan parte hartzearen aldeko apustua eginez.¹²⁶

:: Gehiago jakiteko ::

- Gorka Julio Hurtado (2018) *La apropiación socioeconómica de la tecnología: una vía hacia la soberanía tecnológica*, Talaios Coop.
- Bherria (2019) “Criterios de concesión: Reflexiones y camino recorrido en BherriLab”
- Laia Forné (2020) *“La colaboración público-comunitaria para defender lo común”*, Ciudades vs Multinacionales, ENCO.

Erreferentziako web-orriak:

- Bherria partaidetza-prozesua: <https://bherria.eus/>
- Bartzelonako Udalaren *Patrimonio Ciudadano* programa: <https://ajuntament.barcelona.cat/participaciociudadana/es/patrimonio-ciudadano>

125. Proiektuaren web-orria: <https://uliakolorebaratzak.wordpress.com>

126. Festibalaren web-orria: <https://gauirekia.com>

GIZARTE-ESKUBIDEAK

Euskal Herriko langabezia-tasa % 9 ingurukoa da, batez beste. Bizkaiaren kasuan, % 10,6tik gorakoa da¹²⁷ eta tasa hori gaintitu egiten da Bilbo bezalako hiri handietako auzo batzuetan eta desegituraketa ekonomikoko prozesuetan dauden eskualdeetako herrietan. Baina, okupazio-tasaz harago, lan-arloak egoera kezkagarria du. Izan ere, kontratu partzialek eta aldi baterakoek gora egin ahala, lan ezegonkortasuna larriagotzen ari da, baita gizonen eta emakumeen arteko lan- eta soldata-arrakala ere. Halaber, azken urteetan “plataforma-kapitalismo” deritzonaren enpresa handiak agertu dira eta horrek miseriako lan-baldintzak ezarri ditu, batez ere gazteentzat.

Lan-egoera horrek, beste gizarte-prozesu batzuekin batera, zenbait gizarte-sektoreren

pobretze progresiboa ekartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak adierazten duen bezala.¹²⁸ Benetako pobrezia-egoe-
ran dauden herritarren ehunekoa % 5,7tik % 6,1era igo da eta pobretzat hartzen ez diren baina ongizaterik ez duten pertsonen ehunekoa % 5etik % 6,5era pasatu da.¹²⁹ Desberdintasuna ere nabarmen hazi da, pertsona pobreenen diru-sarrerek behera egiten baitute aberatsenen errentak eta aberastasunak gora egiten duten bitartean.

Ongizate-politikek Euskal Herriko administrazio publikoetan inguru hurbilago batean baino balorazio hobea izan duten arren, egoera horren aurrean ez dira nahikoak eta narriadura eta murrizketa nabarmena izan dute, bai baliabide ekonomikoei bai zerbitzuen kalitateari

127. Gaindegia-Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia.

128. Euskal Autonomia Erkidegoko Pobreziaren eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta.

129. M.^a Luz de la Cal eta Mikel de la Fuente (8/10/2019) “La pleamar no hace subir todos los barcos. Euskadi, más pobreza a pesar de la recuperación económica”, *Viento Sur*.

dagokienez. Izan ere, hurbileko zerbitzuak pribatizatuz doaz, enpresa handien mesederako, eta horrek herritarren ongizatea hondatzea dakar. Erakunde publikoen artean nagusi den esku-hartze sozialeko ikuspegiak, gizarte- eta ekonomia-egiturak zalantzan jarri beharrean, arazoak indibidualizatzen ditu.

Halaber, azken hamarkadetan, gure gizarteak ere enpresa handien praktiken ondorioak pairatu ditu, hala nola etxegabetzeak edo pobrezia energetikoa. Era berean, pertsona migratuen eta/edo aterpe bila datozen pertsonen etorrera bizi izan dugu, pertsona horiek bereziki marjinatuak eta prekarizatuak direlarik. Hala ere, gizarte-, ekonomia- eta bizi-baldintzen prekarizazioak egoera honi aurre egiten dioten ekimen berri asko sortzen lagundu du, gizarte-eskubideen defentsan, elkar laguntzan eta elkartasun-sareetan oinarritzen direnak. Atal honetan, arazoak konpontzeko eta oinarritzko premiak asetzeko erresistentzia- eta autogestio-ahalmena duten ekimen horietako batzuk biltzen ditugu.

Kasu batzuetan, ekimen horiek kaltetutako pertsonen autogestiotik sortzen dira; beste batzuetan, sektore aktibistek herritarren elkartasun-sareak bultzatzen dituztelako. Nolanahi ere, elkartasuna eta **elkar laguntza praktika zehatz bihurtzeko helburua dute**, enpatiarekin, horizontaltasunarekin eta autogestioarekin lotutako balioetan oinarrituz. Ekimen horiek, bada, hurbileko eremuetan garatzen dira, batez ere auzo eta herrietan. Batzuetan, ordea, hiri-, eskualde- edo probintzia-mailako sare-koordinazioetan biltzen dira. Oro har, autonomoak dira erakunde publikoen aurrean, nahiz eta herri-mailan landetza-esperientziak izan diren. Jarraian, aniztasun hori erakusten duten zenbait esperientzia aztertuko ditugu, baita haien esku-hartze soziopolitikoa zertan izan den berritzailea ere.

2000ko hamarkadaren bigarren erdialdean Gizarte Eskubideen Bulegoak (GEB) sortu ziren. Hauek informazio- eta aholkularitza-gune autoantolatuak dira eta euren helburua banakako arazoak gizarte-autoantolaketako

18. Antolakuntza prekarizazio sozialaren aurrean

Sistema sozioekonomikoaren eta bere krisi ziklikoen gogortasunaren ondorioz, herritarrek eurek ekin-tza politikoa (tradizionala edo ez hain tradizionala) eta gizarte-eskubideen murrizketari eta bazterketari aurre egiteko esku-hartze soziala uztartzen dituzten tresna berriak bilatu dituzte alor hauetan: diru-sarrerak bermatzea, enplegua, elikadura, etxebizitza, osasuna, etab. Hala, alde batetik, aldarrikapeneko eta gizarte kontzientziazeko ekintzak eta, bestetik, euren arazoak zuzenean konpontzeko ekintzak uztartzen dituzte.



prozesu bihurtzea da, baita elkarri laguntzeko sareak sortzea eta gizarte-babeserako sistemen gehiegikerien edo gabezien aurrean arazoak konpontzeko estrategiak garatzea ere. GEBek, besteak beste, langabeziaren, gizarte-bazterketaren edo prekarietatearen aurkako plataformetan, auzo-mugimendu edo -plataformetan eta okupatutako espazioetan edo gizarte-zentroetan dute jatorria.

Gure inguruan, Bilboko Argilan, Bilbo Zaharreko Informazio alternatiboko gunea, Santurtziko Kultura Etxea. Basauriko Baietz, Galdakaoko Danok Lan, Portugaleteko GEBa edo Iruneko Erletxea bezalako zentroek gizarte-prestazioen inguruan egin dute lan batez ere, bai eskubidea babesten, bai hura gaizki aplikatzen dela salatzen (diru-sarrerak bermatzeko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, etxebizitza- edo pentsio-osagarria, etab.). Era berean, prestazio horiek jasotzen dituzten edo bidegabeki baztertuta geratzen diren pertsonen autoantolakuntza bultzatzen dute.

Barakaldoko [Berriotxoak, Gizarte bazterketaren aurkako eta gizarte eskubideen aldeko Plataformaren](#) Informazio Alternatiboko Bulegoak prestazioak lortzeko aholkularitza ematen du eta kaltetuen gizarte-antolaketa sustatzen du. Mugimendu bezala, gainera, honako arlo hauetan esku hartzen du: erabilera sozialeko ondasunen doakotasuna babesten (garraioak, argindarra, ura, kirol- eta kultura-instalazioak, etab.), Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) eta lan-ezegonkortasunaren aurka borrokatzen, gizarte-premien aurrean gastu-militarra salatzen edo etxebizitza izateko eskubidea defendatzen.¹³⁰

2018ko udan, Euskal Herrira ehunka pertsona migrante eta errefuxiatu heldu ziren eta, harrera-gune faltaren aurrean, herritarren erantzuna harrigarria izan zen, bere azkartasunagatik, gizarte-mobilizaziorako gaitasunagatik eta autonomiagatik. Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) taldearen eta beste gizarte- eta auzo-ekimen batzuen laguntzaz, hainbat harrera- eta arreta-gune ireki ziren, hasieran Bilboko zenbait auzotan eta gero Irunen eta Donostian ere. Horietan, arreta emateaz gain, aldarrikapena eta salaketa ere egiten zuten. Garai horretan sortu ziren ere harrera-sare herritarrak. Gaur egun, bakarrik Bizkaian, sare horiek pertsona migranteei etxebizitza eta beste laguntza-gune batzuk ematen dizkieten 16 proiektu dituzte.

[Irungo Harrera Sareak](#), 2019an, 3.000 pertsona baino gehiago artatu ditu, batez ere igarobidean daudenak. Guneak, etxebizitzak, elikagaiak, arropa, lekualdatzeak eta abar eman ditu sareak eta, aldi berean, Frantzia eta Espainiako polizia mugan egindako praktikak salatzekeko mobilizazioak antolatu dituzte.¹³¹

Erakunde publikoek aipatutako borrokak eta ekimenak laguntzeko aukera dute, udal-guneak lagaz, kaltetuei laguntza emanez eta gizarte-bazterketa eta zerbitzu publikoen murrizketa larriagotzen duten lurraldez gaindiko politikak salatuz.

Azkenik, aipatzekoa da etxebizitza eta argindarra bezalako oinarritzko eskubideak babesteko helburua duen gizarte-antolaketa. Horren adibide da 2009an sortutako Hipotekak Kalte Eginikoen Plataforma (PAH). Hark kaltetuen autoantolaketa eta elkar laguntzaren ahalmena erakutsi du; aholkularitza

130. Plataformaren web-orria: www.nodo50.org/berri_otxoak

131. Sareari buruzko informazioa: <https://twitter.com/irungohs>

kolektiboaren, mobilizazioaren eta etxegabetzeak geldiarazteko ekintza zuenaren bidez. Orintsuago, hainbat hiritan maizterren sindikatuak sortu dira, alokairuen igoeraren eta arauketa eskasaren ondorioen kontra borrokatzeko.¹³² Gainera, pobrezia energetikoa pairatzen duten pertsonen plataformak eta elkarri laguntzeko tresnak sortu dira, hala nola elikagai-banku herritarrek.

PAH Hipotekak Kalte Eginikoen Plataformak 20 nodo baino gehiago ditu Euskal Herrian. Halaber, 2013an, [IRPH Stop Gipuzkoa](#) plataforma sortu zen Hipoteka Maileguren Erreferentzia Indizearen ondorioak salatzeko.

Oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea babes-teko egin daitezkeen udal-politika publikoak honako hauek eskatzen dituzte: bankuei eta enpresa elektrikoari presioa egiteko estrategiak, aholkularitzako eta prestakuntzako udal-zerbitzuak eta gizarte-laguntzak, baina batez ere etxebizitza- eta energia-ereduak eraldatzea, lehen azaldu dugun bezala.

Hain zuzen ere, zenbait herritan egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko garatu duten modu bat **mikrokreditu-programak** izan dira, **finantza etikoko erakundeekin batera, egoera ekonomikoa oso ahulean dauden pertsonen zuzenduak.**

Hernaniko Udalak, Fiarerekin batera, [interesik gabeko maileguak ematen dizkie arrisku egoeran dauden per-](#)

[tsonei](#) oinarrizko gastuei aurre egin ahal izateko. Udalak, Fiarrek eta Stop Kaleratzeak eta AMHER erakundeek osatutako batzorde batek aztertzen ditu eskaerak.¹³³

19. Autodefentsa eta erakundeen inplikazioa lan-prekarietatearen aurrean

"Aldi baterako lanak, ordukakoak, autonomo faltsuak, etengabe luzatzen diren praktika-kontratuak, errespetatzen ez direnak... eta hori kontratua izateko zortea badugu. Zaindu beharreko pertsonak, txikiak zein nagusiak, bukatu beharreko ikasketak eta gero bueltan lanera. Derrigorrezko ordu estrak, soldata miserableak, ordaindu gabeko praktikak, kaleratze bidegabeak, ez ordaintzea, lan-jazarpena, baja hartzeko beldurra, mota guztietako gehiegikeriak... Ezaguna egiten zaizu?"¹³⁴

Testu horrek argi adierazten du azken urteotan izan den prekarizazio prozesua. Honako hauek dira prozesu horren arrazoiak: lan-legerian izandako atzerakada, eskubideak eta prestazioak galdu izana, enpresa handien boterea, plataforma-kapitalismoaren agerpena, eta abar. Horren aurrean, azken urteotan autodefentsa plataformak sortu dira. Horiek, salaketaren eta ekintza zuzenaren bitartez, aipatutako egoeretan esku hartzeko helburua dute.¹³⁵

132. Ikus "Lurralde-plangintza, urbanismoa eta etxebizitza" atala.

133. Informazio gehiago hemen: www.hernani.eus/es/oinarrizko-gizarte-zerbitzuak2

134. Iruñeko Langileen Autodefentsa Sarea.

135. Lan-eskubideen aldeko eta lan-prekarizazioaren aurkako borrokaren eremuan aipatzekoak dira etxeko langileen defentsarako bulegoak eta kolektiboak. Horiek "Denborak eta Zaintzaren antolaketa soziala" atalean aipatzen dira.

Iruñeko Langileon Autodefentsa sareak hainbat kanpaina egin ditu, hala nola “San Ferminen esplotatu egiten zaituzte. Zuk gozatzen duzu, haiek lan egiten dute” kanpaina eta lan-gatazketan eta lan-gehiegikerietan sartuta dauden enpresen aurkako presio-kanpainak. Bere aldetik, Bilboko **Eragin** komunitateak gazteek pairatzen duten lan-ezegonkortasuna salatzen du, lan-gatazka jakinetan babes-kanpainak egiten ditu eta ostalaritzako edo eskola partikularretako prekarizazioa, autonomo faltsuak edo apustu-etxeak salatzen ditu.¹³⁶

Bestalde, “plataforma-kapitalismoak” (Uber, Glovo, Deliveroo...) pertsona askoren lan-prekarizazioa ekarri du, batez ere gazteena eta, maiz, kontratu-eredu ilegalak erabiltzen ditu, hala nola “autonomo faltsuak”. Hala, gero eta gizarte-erakunde gehiagok egoera horiek saltzen dituzte. Zenbait hiritan, gainera, enpresa horietan lan egiten duten pertsonak iruzurrak salatzeke antolatzen ari dira eta kontsumo eta banaketa kooperatibak sortzen ari dira.

Mensakas Bartzelonan sortutako lan-kooperatiba da, beste plataforma batzuetatik datozen banatzaileek osatuta. Horretan lan-baldintza duinen alde egiten dute. **La Pájara Ciclomensajería** Madrilgo kooperatiba bat da, bizikletaz banatzen duena eta lan-baldintza duin eta jasagarriak dituen.¹³⁷

Beste alde batetik, erakunde publikoek lan duina sustatzeko hainbat modu dituzte, batez ere euren eragin-eremuan. Horretarako bada,

zerbitzuak berrudalekotzea sustatzen da, kudeaketa zuzenaren edo ESSko erakundeek kudeakidetzaren bitartez; baita kontratazio publiko arduratsua ere. Azken hori, lan arloan honako hauek betetzera behartzen dituzten klausulen bitartez gauza daiteke: sektore- eta lurralde-hitzarmenak aplikatzea, lan-baldintzak hobetzea, lan-ezbeharrak prebenitzeko neurriak ezartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea edo horniketa-kate osoan zehar oinarritzeko lan-eskubiak errespetatzen direla bermatzea.

20. Ekonomia komunitarioak bizitzaren merkantilizazioaren aurrean

Zerbitzu eta baliabide publikoen merkantilizazio- eta pribatizazio-prozesuek bizi-baldintzen prekarizazioa bizkortu dute. Horien aurrean, auzo edo lurralde jakin batean lan-kidetzaren eta antolakuntza kolektiboaren bitartez pertsonen beharrak ase eta pertsonen arteko harremanak sendotu nahi dituzten ekimen asko sortu dira. “Ekonomia komunitario” izenez ezagutzen ditugu horiek, ekonomiaren ideia alternatibo bat sutatuz. Horrek pertsonak eta bizitzaren iraunkortasun zabaldua kokatzen ditu erdigunean.

Ekimen horiek, bada, herritarrek eurek sustatzen dituzte; ez merkatuak, ez erakunde publikoek, ez dituzte horiek orientatzen edo zuzentzen. Eremu publikoaren (jarduera instituzionala) eta eremu pribatuaren (merkatuaren jarduera) arteko banaketa klasikoaren aurrean, komunitarioarekin zerikusia duen hirugarren eremu bat sortzen da. Autogestioa gizarte-autoantolaketaren bidez zabaltzen da eta ondasun komunak eta harreman-ondasunak sortzeko ariketa bihurtzen da. Esperimentazio horiek zentzu soziopolitiko bat par-

136. Eragin web-orrialdea: <https://eraginbilbo.eus>

137. Kooperatiben web-orriak: www.mensakas.com eta <https://lapajaraenbici.com>

tekatzen dute, banakako beharrak eta behar kolektiboak uztartzen dituzte eta konfiantzako harremanetan, batzar bidezko prozesura demokratikoetan eta botere banaketako antolaketa-moduetan oinarritzen dira, pluraltasuna eta aniztasuna errespetatuz eta ekintza kolektiboko estrategia kolektiboko estrategia bat erabiliz.

Lehenengo talde batean merkantilizatu gabe-ko trukean oinarritzen diren horiek sar ditza-kegu. “Denbora-bankuen” kasuan, ez dira ob-jektuak trukutzen, ezagutzak, trebetasunak eta zerbitzuak baizik, eta emandako denbora da transakzio horien “moneta”. Ekimen eko-nomiko alternatibo bat izateaz gain, pertso-na ezezagunen artean harremanak sortzeko ahalmena du.

Barriosaltos denbora-bankua Aldau-ri Fundazioak 2008tik Bilbo-Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan sustatutako ekimena da. Haren hel-burua izaera alternatiboko trukeak sustatzea da, baita auzokoen arteko harremanak eta dinamizazio sozioko-munitarioa sustatzea ere.¹³⁸

Halaber, merkatuetan, truke-azoketan edota “doako” dendetan oinarritutako esperientziak daude. Azken horietan, jendeak jadanik behar ez dituen objektuak uzten ditu beste batzuek horiek dohainik har eta erabil ditzaten. Kasu horretan, beraz, birziklatzearen balio ekolo-gikoa eta opari ekonomiaren balioa aurkitzen ditugu. Badaude kolektiboen artean baliabi-deak partekatzeko sareak ere.

Gauzateka ezer saltzen ez duen denda moduko bat da. Emaús Gizarte Funda-zioak Donostian sustatutako ekimena da eta bere helburua jendeak gutxiago

gastatzea, hondakin gutxiago sortzea eta elkarren arteko lotura indartzea da.¹³⁹

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da “mone-ta sozialak” (edo tokikoak, osagarriak, komu-nitarioak) ugaritzea. Horiek erabilera legaleko moneta erabiltzen ez duen produktu eta zer-bitzuen salerosketa-sistema batean oinarrit-zen dira. Asko daude; batzuek lurralde bateko ekonomia indartzeko helburua dute, beste batzuek sare jakin bateko trukeak egiteko ba-lio dute eta badira balio jakin batzuk sustatzen dituztenak ere (ekologia, feminismoa, kultura eta hizkuntza minorizatuak). Batzuek diru fisi-koa erabiltzen dute eta beste batzuek birtual-ki egiten dituzte eragiketak. Batzuek erabilera legaleko monetarekiko parekotasuna dute eta beste batzuek sistema konplexuagoak erabilt-zen dituzte.

Hezkuntzaren eta zaintzaren arloetan ere ekimen komunitarioak ditugu. Horien adibi-de dira “haziera taldeak”, “edoskitze taldeak”, hezkuntza alternatiboko esperientziak, nagu-siak zaintzen dituzten pertsonak (batez ere emakumeak) elkarri laguntzeko taldeak, etab. Elikaduraren sektorean tokiko produktu eko-logikoen kontsumo-taldeak edo hiri-baratze partekatuak ditugu.

Azken batean, ekimen horiek, oinarrian, logika merkantilistak eta korporazio handien produk-tu eta zerbitzuen kontsumoaren menpe egotea hausten saiatzen dira, eta politika publikoen eraginkortasun ezari aurre egiten diote; izan ere, politika horiek gizarte-beharrei erantzun beharrean, prekarietatea, desberdintasuna eta gizarte-desmobilizazioa areagotzen dituzte.

138. Denbora-bankuaren web-orria: www.bdtbilbao.com

139. Ekimenaren web-orria: www.gauzateka.com

:: Gehiago jakiteko ::

- Edith Pérez Alonso, Antonio Girón eta Juan Luis Ruiz Giménez (koordinatzaileak) (2019) *Los cuidados. Saberes y experiencias para cuidar los barrios que habitamos*, Libros en Acción eta La Sandunga Transmedia.

- Julio Gisbert Quero (2010) *Vivir sin empleo. Trueque, bancos de tiempo, monedas sociales y otras alternativas*.

Erreferentziako web-orriak:

- Baladre Prekariatatearen, pobretzearen eta bazterketaren aurkako Koordinazioa: www.coordinacionbaladre.org

- Eguneroko bizitzaren autogestioa: <http://autogestion.ilusionismosocial.org>

- Denbora-bankuak: www.bdtonline.org

